

Karkara

karkara.eus

Orioko eta Aiako aldizkaria • 2018ko martxoaren 23a • 393. zenbakia



Plazara atera dute haserrea

Pentsiodunek urteetan pilatutako amorruek eztanda egin du. Zaharren Babeslekuko kideek pentsio duinen aldeko borrokaren berri eman digute.

8

Erreportajea
Imanol Alguacil

17

Erreportajea
Orioko Udal Aurrekontuak

26

Elarrizketa
Nekane Arrizabalaga

25

Moila bazterretik
Garbiñe Manterola



Gale Bask S.L.

BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK

- Lurak-komunak-sukaldeak-terrazak
- Pintura lanak
- Igeltzeritza
- Iturgintza
- Elektrizitatea

Kale Nagusia, 2 - behea (20810 Orto)
 Telt./Fax: 943 134 717
 Mugikorak: 638 610 343 / 638 610 349
 galebask@hotmail.com



Komun eta sukaldeen erreforma
 Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
 Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
 Bainujentzia leudei eta duta jantza
 Gremioen koordinazioa, deklarazioak
 Zeru erraztatzea

www.fontaneria-fontana.com

fontana
iturgintza

Plaza Endala nº 1, 20810 - Orto
 fontana-ju@hotmail.es
 661 262 828

ITURGINTZA · GASA · BEROGAILUAK



Sagasti
LEIHOAK

Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 53 71 90
 sagasti@sagastileihoak.com
 Arroyozak kalea, 83
 20810 Orto

Kalitatezko materialak
 PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
 Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihoak.com

IZARRA ELEKTROGAILUAK



2 m/A++
550€

299€

7k/1200rpm

77€
449€

KAEG

TIEN 2i

Etorri ikustera

SUKALDEAK NEURRIRA

Bosko Gudarai, 44 · Tel. 943 83 38 81
 20810 Orto (Bilpuztekoa)

JARRI PUBLIZITATEA
KARKARAN
 688859682

XS arkitekтура

obrak
 proiektuak
 errehabilitazioak
 txostenak
 eraikuntza zerbitzuak
 IFEak
 eraikinen mantenua

biga agintaribe esperegi: 6 3 5 7 3 1 7 2 2
 berrito Espaini 1, beheko 9 4 3 1 3 4 3 5 8
 20810 orozak xarkitekтура.com

www.xsarkitekтура.com



ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatutak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua
 konpromisorik gabe

Ander Zinkomaij
667 740 279

garay
manufacture

**SUKALDEAK
 PROIEKTUAK
 ERREFORMAK**

www.garay.eus

Olabildea aldea 1
 (Errotaberri Industrialdea)
 20.800 Zarautz

943 13 31 09

393

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27

karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Erredaktore burua

Miriam Garcia

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe
Onintza Aiestaran
Olatz Artola
Iñigo Exposito
Jon Garate
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Sonia Albizu

Ale honetako kolaboratzaileak

Mirari Arriola
Pat Cowie
Arturo Elosegi
Iñaki Iturain
Garbiñe Manterola
Eneritz Odriozola
Leire Vitoria

Diseinua

Saioa Perona

Banatzzaileak

Ibon Berasaluze (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota iritzieren erantzukizunik. Karkaran argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada

TOKIKOM

**LAGUNTZAILEAK:**

Aiako Udala Orioko Udala Gipuzkoako Foru Aldundia

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Leire Vitoriari jarri dio puntua Bittor Andresek: *Martxoaren 8a ospatzen al dezu?* Hurrengoari ere jarri dio puntua.

PUNTUA JARRITA

LEIRE VITORIA (DOINUA: MARITXU NORA ZOAZ)

1**Martxoaren 8a ospatzen al dezu?**

Txilipitu ta zartai han ginen gu aizu. Mikromatxismo, irain kolpe eta izu, borrokan jarraitzeko asmotan gaituzu.

2

Lehenkoak zirelako gaurkoan gu gara, biharkoaren alde badaukagu lana. Aurtengo egun honek sortu dun zirrara, gizarteak egin du sekulako eztanda.



Manifestazio jendetsu eta zaratatsua izan zen martxoaren 8an. KARKARA

Hurreng bertsolaria:

Lukene Lizaso

Puntua:

Balea elkartetik dator notizia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Etxebizitzak alokatzeko eskaria Orion

Otsailaren 21eko udalbatzarrean PSE talde politikoak astebete lehenago udaletxean sartu zuen *Alokairuzko etxebizitzak, gazteei lehentasuna emanaz* mozioa bozkatu zen. Zazpi aldeko botorekin –EH Bildu, Orain, PSE– eta bost abstentziorekin –EAJ-PNV– onartua izan zen.

Lau puntu zituen mozioak, hurrenez hurren:

1.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea etxebizitza babestuen egitea Orion, alokairuzko erregimenean eta gazteei lehentasuna emanaz horiek eskuratzeko. Helburu hori lortzeko, udalak behar diren bilera eta gestioak egingo ditu, 2018ko lehen sei hilabetekoan.

2.- Eusko Jaurlaritzari doan lagatzea Muntoko udal partzela, bertan etxebizitza babestuen egin ditzan alokairuzko erregimenean eta gazteei lehentasuna emanaz horiek eskuratzeko.

3.- Orioko Udalak aurreko puntuan aipatzen den lagapena gauzatzeko behar diren txosten eta azterketak egingo ditu.

4.- Orioko Udalak behar diren gestio guztiak egingo ditu akordio hori gauzatzeko, eta erabaki horren berri emango dio Eusko Jaurlaritzari.

EAJ-PNV talde politikoak bere abstentzioaren arrazoietan nagusienetako bat oriotarren alokairuzko etxebizitzaren beharra eta eskari zehatza ez jakitea izan zen.

Muntoko udal partzelan 48 etxebizitza izango direla estimatzen da, bost urtetarako kontratuak eta 200 euro inguruko alokairuarekin. Hilabete batzuk dira Azpeitian eta Zarautzen hitzarmenak egin dituztela Eusko Jaurlaritzarekin, herrian erroldatutako gazteei lehentasuna emateko.

Horren harira, Orain taldeak Gipuzkoako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzari honako informazio hau eskatu dio: Zenbat oriotar dauden

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erre-dakziora eskura ekarri –Orioko edo Aiako Kultur Etxean– edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-ekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

Etxebizitza sailean izena emanda alokairuzko etxebizitza Orion eskatzen.

Eusko Jaurlaritzatik erantzuna idatziz helarazi zaigu: 2018ko otsailaren 28an alokairuzko etxebizitza lortzeko 121 oriotar daude izena emanda. • **Orain taldea**

Lur Alkartasuna KOOP. E.

Karkara aldizkariaren azken alean Miren Alberdi Aizpuruaren izenean argitaratutako iritziari erantzunez, Lur-Alkartasuna Kooperatibako Zuzendaritza Batzordeak honako argibide hauek eman nahi ditu.

1) Aipatzen duen *kaltetutako* bazkide horrek, dakien edo jakin behar lukeen moduan, Kooperatiba honek barneko arauak ditu funtzionatzeko, eta hori da toki egokiena bere zantzak, eskakizunak edo beste edozein gai argitzeko, egiaztatu gabeko argumentuz osatutako bertsio subjektibo bat kaleratu ordez.

2) Aipatzen duen “kaltetutako” bazkide horri, 2013ko apirilaren 2an gutun bat bidali zitzaion Lur-Alkartasuna Kooperatibako Zuzendaritza Batzordearen izenean, garai haietako argibide kontable zehatzak eskatuz (ordura arte bera izan baitzen

Kooperatibako diruzaina). Zehaztasunetan sartu gabe (hau ez da foro egokia horretarako), galdera ugari erantzunik gabe utzi zituen orduan eta horrela gaurdaino.

3) Iritzia argitaratu duen horri, adierazi baita ere, berak ondo dakie-la (behin eta berriz esan zaiolako) legez ze erataria eta nora zuzendu behar duen Kooperatibari buruz informazioa jaso nahi izanez gero.

Azkenik, berretsi, Kooperatibako gaiak aztertzeko, lantzeko eta edozein zalantza argitzeko bazkide guztiak ateak zabalik dituztela urte guztian zehar, eta bereziki nola ez, urteko Batzarrean. • **Lur-Alkartasuna Kooperatibako zuzendaritza**

Bazkide plaza librea Balea Elkartean

Balea Elkartean bazkide plaza bat libre geratu da. Elkarteko bazkide izateko interesa duena etor dadila elkartera zuzendaritzaren bilera batean. Astelehenetan 19:30ean elkartzen gara. • **Balea Elkarteko zuzendaritza**

Okerrago ezin: zer gertatzen da lurrazpiko edukiontziekin?

Hondakinak biltzeko sistema berria dela-eta, 2017ko ekainaren 16ko udalbatzarrean erabaki zen, gehien-goaren aldeko botoarekin, herrian ditugun lurrazpiko edukiontzien 14 gune egokitzea –21 dira, guztira–.

Bederatzi hilabete izan ditu EAJk egokitzen lan horiek martxan jartzeko: gaia udalbatzarrerera eraman eta adjudikazio-prozesua abiatzea zen kontua, baina ez dute ezertxo ere egin. Orain, arduragabekeria horren ondorioak jasan izan behar dituzte hainbat eremutako bizilagunek: lurrazpiko edukiontzia plastikoz estali dira, eta aparkalekuak edo bestelako gune publikoak okupatu dira kanpoko edukiontziekin.

Oraindik zain gaude EAJk gaia noiz eramango udalbatzarrerara. On-

doren, gutxienez beste hiru hilabete beharko dira edukiontzi horiek egokitzeke lanak egiten hasteko. Bilketa sistema berriak ardua eta seriotasun gehiago merezi zuen. • **Lur-Alkertasuna Kooperatibako zuzendaritza**

Alokairu soziala, Orioko etxebizitza arazoei irtenbidea emateko edo ez?

Karkaran, aurreko zenbakian, Udalarena den Muntoko lursailerako PSE-EE taldeak aurkeztu eta Orain eta EH Bilduren babesu zuen proiektu bati buruzko artikulu bat argitaratu zen.

Bertan, Eusko Jaurlaritzarekin egingo luken akordio baten bidez gazteentzat alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzea proposatzen zen. Lur sail hori Udalak Eusko Jaurlaritzari dohainik emango lioke eta Eusko Jaurlaritza arduratuko litzateke etxe horiek eraiki eta kudeatzeaz.

Proposamenak oso erakargarri badi Dirudi ere, eta etxe hauetako bat alokatzeko asmotan bazabiltza, agian jakin behar zenuke horretarako aukerak oso murriztak direla.

Orion Bizi Kooperatibakook uste dugu proposamen honek Eusko

Jaurlaritzako etxebizitza politikak dioena babesten duela, eta ez Orioko herriak, herri moduan duen etxebizitza arazoa konpontzen.

Gure iritziz PSOEk aurkeztutako proposamen honek ez digu oriotarroi bat ere laguntzen. Izan ere etxebizitza hauen esleipena Etxebideren zerrendetan izena emana duten pertsona guztien artean egiten da. Oriotarra izateagatik ez genuke inolako lehentasunik izango eta Zarautz, Zumaia, etab.-eko bizilagun guztiek aukera berdina izango lukete etxe hauen alokairuetarako hautatuak izateko.

Lursail honetarako Orion Bizik aurkeztzen dugun proposamenak oriotarroi lehentasuna ziurtatzen digu eta gainera herriari honako onura ekonomikoak dakarkio:

- Udalari lursaila EROSTEAK –Eusko Jaurlaritzari dohainik ematearen orde– herriko hainbat zerbitzutan inbertitzeko aukera ematen du. Herritik datorren diru bat herriari emanaz.

- Lanpostuak sor daitezke langabezia dauden herritarrentzat.

- Bertako eraikuntza enpresei lana emanaz.

Gure proposamenak bi aukera ematen ditu: Babes ofizialeko etxe-

bizitzak jabetza moduan eta Babes Ofizialeko etxebizitzak alokairuan. Honela herriak dituen behar ezberdinak bermatuz.

Orion Bizitik Udalari eskatzen diogu elkarrizketa ireki baterako aukera eman diezagula herritar guztiok plazaratu ditzagun etxebizitzaren inguruko beharrak eta nahiak. Honela herriak benetan dituen arazoak herritarren artean konpontzeko aukera emanaz, eta ez utziaz Eusko Jaurlaritzaren eskuetan bakarrik.

Gure lema hau da: *Orokorrean pentsa ezazu, eta herrirako lan egin.* Honekin lortzen dena da, soluzioa azkarragoa, egokiagoa eta pertsonalizatuagoa izatea.

Herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu hurrengo bilera ireki batean eztabaida orokorrean parte hartzea, bai eta Udaleko alderdi politikoko guztiak ere. Horrela, herriak dituen etxebizitza arazoak zeintzuk diren identifikatu eta honi soluzioa emateko politika egokiena definitzeko.

Honela, kartel bidez jakinaraziko dugu bilera honen data, ordua eta kokalekua. Bitartean, norbaitek informazio gehiago nahiko balu, honako helbide honetara idatz dezake: orionbizicooperativa@gmail.com

Orion Bizi kooperatiba

■ EZKONDUTAKOAK

- Jon Josu Albizu Elizalde eta Maria Nela Corrales Leyva, Orion, martxoaren 10ean.
- Nagore San Sebastian Aranburu eta David Trincado Marin, Orion, otsailaren 24an.

■ JAIOTAKOAK

- Maddi Quintatilla Martin, Orion, martxoaren 17an.
- Nour Qouba Sanchez, Orion, martxoaren 11n.
- Francesca Parascheva Iusein, Orion, martxoaren 9an.

■ HILDAKOAK

- Francisca Segurola Agirre, Aian, martxoaren 19an. 75 urte.
- Imanol Ibarbia Iñarra, Orion, martxoaren 18an, 58 urte.
- Joxe Aginaga Galarza, Orion, martxoaren 17an. 82 urte.
- Antonia Caballero Leon, Orion, martxoaren 13an. 88 urte.
- Viktoriano Larraza Oliden, Orion, martxoaren 10ean. 65 urte.
- Bautista Lazkano Ubiria, Aian, martxoaren 9an. 92 urte.
- M^a Pilar Lertxundi Gurrutxaga, Aian, otsailaren 21ean. 85 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27

ZUR EDER
muebles tapicería altzariak

zur eder@zureder.com
943 13 49 21
Polígono Ubeğun Nº1, Puerta 8
20810, Aia-Orio

**AUKERA!
50%
- ERAINOKO
DESKONTUA
KOLTZOIETAN**



Portu ERRETEGIA

Santxo Erreka Auzoa, 24
943 89 4434
20809 AIA-ORIO

*Leakak biontoak aldatu
Puntuko erretak egiten dira*



**PIZZERIA
KALETA**



ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

niko taberna



Karta · Pintxo tradizionalak
Okindegia
Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943 53 61 27

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA GELATTO



943 578 176
Hemiko enparantzan

lzozki naturalak Opilak

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa

argine

15eko desberdina familia egiten sartutakoak

Eusko Gudari, 9 - Orio
943 134 889 [f](#) argine/jantziak

ARISTERRAZU
jatekxoa

Andatza auzoa - AIA
Tel. 943 83 45 21



K-U-K-U-A-R-R-I
ELEKTRIZITATEA



Tel. 943 100 101
Mobiila 649 201 300
Zigordia, 52 - Beha C
20800 Zarautz
kukuarri@kukuarri.com

mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 572 083
FAX - 943 571 190
lasenjo@hotmail.es

INES ASEÑO
ABESLARI, 1
20810 ORIO



Garbine Arregi

Moda eta osagarriak

*Herrera plaza, 5
635 706 263*

pasapantxan goizez zabaldu!



PERTSIANAK

A K O M A Z

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27



Katu Horia

ORIOGIZGIZO JANTZIA

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larriaitzak
688 89 11 20

www.katuhoria.com



Ille apaindegia

MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO



ORIA
hartz klinika

Arantzale kalea, 63 behea
20810 ORIO
Tel.: 943 83 36 45

Orio Hartz Klinika **ORTODONZIA**
zerbitzu berria jarri du martian.
Prebentzioa ezinbestekoa dela
jakinda, hartu aurre erotikizunean sor
dalezkeen arazoak.

MENDIZABAL
ARROZTEGIA

Nearriko arnairak
eta eperlarak

943 831 175
645 708 491
mendizabalgi.net

Altsen bidea
Behi-Aloi etxea
20810 Aia-Orio

Aldarrien hilabetea izan da



Hezkuntza publikoaren aldeko mobilizazioak izan dira. ZARAGUETA



Otsailean onartu ziren Orioko udal aurrekontuak. KARKARA



Astilleron bandera irabazi zuen Oriok. BERMEO ARRAUN ARGAZKIAK

“Jubilatuek pankartak egiten eskarmentu falta erakutsi dute, pankartalaritza ez dago Ostargiko kursilloen eskaintzan”

Baten batek *me voy y me marcho* esan omen zien agurtzerakoan koadrilakoei. Lagun batek gazteleraz ondo ulertzen ez eta lagunak esandakoa itzultzeko eskatu zion ondokoari: *badoala eta ez dela martxorarte itzuliko*.

Martxoa ere joan da, greben eta protesten hilabetetzat gogoratuko dugu: martxoaren zortzia, jubilatuen protesta eta irakasleen greba. Bakarren batek soldatan antzemango du. Jubilatuek pankartak egiten eskarmentu falta erakutsi dute, pankartalaritza ez dago Ostargiko kursilloen eskaintzan. %25 marraztu zuten pankartan eta ondoren zuzendu. Inoiz ez da berandu zuzentzeko, zureztat ere ez Mariano.

Martxoan egin da urtero herrian egiten den bilera garrantzitsuena. Ez gara aurrekontuen plenoaz ari, otsailean onartu zituen Orioko Udalak urteko partida nagusiak. Orio Arraunketa Elkartearen batzarrak plenoa baino jende gehiago erakarri zuen pintxo potearen orduan. Aldarri eta protesta gutxi bertan, Huegunen taldeak aho batez onartu ditu iazko jarduera eta aurtengo egitasmoa. Urteberrion denoi! Pasa den asteburuan Jon Salsamendik azken estropada jokatu du: azken aldiz eseri da tostan, baina lanean jarraitzen du. Banderak irabazten, azkenak Castron eta Astilleron, Revillaren lurretan. Euskaraz ez hitz egiteko eskatu omen zien Cantabriako zale batek bandera jasotzerakoan. Datorrela protesta egin zuena Karela kiroldegira. Iluntzean nekez aurkituko du bizikleta bat libre. Hori bai, gehiengo castellanoz ariko da raka-raka. Horixe ba, *me voy y me marcho*. Eskerrak Euskaraldiko lan-taldea lanean hasi den. Badaukagu zer egina, Imanol Aguacilek Realean bezala.

Oriotarra Realeko aulkian, zorte on Imanol!

Realzaleak etsita dabilta aurten. Imanol Aguacil oriotarrak izango du txuri-urdinen animoa berreskuratzeko ardura. **Jokalari eta entrenatzaile ibilbidean ondoan izan dituen lagun eta jokalaroriotarren** hitzak bildu ditugu erreportajearen.

JON AGIRRESAROBÉ

Igandean ez zuten jai izan Zubietan. Bezperan Getaferean aurkako partidua galdu zuen Realak, *Loren kanpora* oihuak entzun ziren Anoeta suntsituan eta igandean dimisioa eman zuen Burgosekoak. Akaboa *Eusebioren tiroa*, igandean kaleratu zuen entrenatzailea Aperribay presidentek. Imanol Alguacil Logroñesen aurkako partidua prestatzen ari zen. Bi eta huts irabazi zuen *Sansek* eta hirugarren jarri dira sailkapenean. Baina partida amaitzean Aperribaik bulegora deitu zuen oriotarra. Igande gaueko hamarretan iragarri zuten albistea: oriotarra Realeko aulkira. Igoera fasea jokatuko du Imanolen *Sansek*, baina hondooa jota dagoen lehen taldea zuzentzea agindu diote. *Klubeko pertsona naiz, eta neure buruari baino taldeari begiratzen diot. Ezin nion aukerari muzin egin, eta ahal dudan guztia egingo dut.*

Iñigo Garmendia koadrilako lagunak kontatu digu Jexux Esnalen *Alkarturik* taldeak eman zuela *plaierotan* hasteko lehen aukera. Gerora Oriokon hasi ziren Alguacil, Garmendia, Arostegi eta abarrak, Pedro Fernandez eta Agustin Illarramendiren esanetara. Jubenil mailako hirugarren urtean pasa zen Realera, Karmelo Amas izan

zuen entrenatzaile. *Gure artean Imanol oso ona zen teknikoki eta fisikoki, ezker hegalean jokatzen zuen lehenbizi, pibote postuan gero eta defentsa amaitu zuen, dio Garmendiak.*

1990 eta 1998 urte bitartean jantzi zuen elastiko zurri-urdina, Atotxan eta Anoetan. Gehienetan eskuin hegalean aritu zen. 90-91 denboraldian egin zuen debuta



Imanol Orioko Futbol Taldeko lagunekin. GARMENDIA

Oviedoko *Carlos Tartieren*. Hurrengo denboraldia lehen taldearekin egin zuen osorik. Zazpi denboraldi egin zituen eta zazpi gol sartu. Entzutetsuena, beharbada, *Santiago Bernabeu* zelaian Real Madrili sartu ziona.

Imanol Peña ere sortu zuten Realzale oriotarrek. Joxe Egibar zena presidente, Salatxo taberna izan zen taldearen operazio gunea. Anoetako 21. atletik sartzan ziren oriotarrak elkarrekin partiduak ikusteko. 32 urte-

rekin utzi zuen futbola Imanolek Realera, Villarreal, Cartagonova, Jaen eta Burgosen aritu ostean. Segidan hasi zuen entrenatzaile ibilbidea. Oriokon hasi zen, kadete mailan. Ohorezko mailara igotzekotan izan ziren jokalarik gazte haiek. Iñigo Expositok oso oroitzapen ona du: *asko erakutsi zigun, futboleko baino gehiago kirolari izaten. Lehen egunetik garbi esan zigun ez zela derrigorrezkoa entrenatzera joatea, hori bai, joatekotan serio joateko. On-*

doren Zarautzen entrenatu aritu zen, Nazional mailara igo berria zen taldea eta maila mantentzea lortu zuten zarautzarrek. Futbolarien artean bi oriotar, gutxienez: Lander Arriola eta Jokin Bellido. Azken honek gogoan du Imanolen lanerako grina eta ilusioa: *lehiakorra da Imanol eta jokalariei lehiakorrak izaten erakutsi zigun.*

Realera egin zuen jauzi Imanolek. Bi urte egin zituen jubencil mailan, bigarren urtean liga irabazi zuen *Easo* taldearekin. 2014. urtean hartu zuen *Sanse* taldearen ardura Davis Moyes lehen taldearen entrenatzaile izendatu zutenean. Lehen urtean hamalugarren sailkatu ziren, bigarrenean zazpigarren, hirugarrenean hamargarren eta aurten hirugarren dira sailkapenean. Iaz jokalaria askok lehen taldera salto egin zuten: Elustondo, Guridi, Odriozola, Bautista, Rodriguez, Oyarzabal eta Zubeldia bikain ezagutzen ditu Imanolek. Aurten 55 punturekin utzi du *Sanse*, bost puntura dute *Sporting B* liderra eta bi puntura *Mirandes*, bigarren sailkatua. Anekdotak polita da honakoa: Garmendia eta koadrilako lagunak *Sanse* eta Imanolen partiduak ikustera joaten dira oraindik.

Toshack eta Moyes

Ezustekoa izan zen igandekoa, baina ez da bakarria izan Imanolen ibilbidean. John Benjamin Toshackek Albaceten aurrelari jarri zuen Imanol eta gola sartu zuen, hemerrotekaren arabera *begiak itxita* errematatu zuen baloia. 92-93 denboraldia zen, 1-2 irabazi zuen Realak Imanol eta Carlos Xavierren golekina. Bestetik, Imanol ez da lehen aldiz Realaren aulkian eseriko: Atletico de Madril taldearen aurkako partiduan Santana entrenatzailearen laguntzaile lanetan aritu zen, Arrasate joan eta Moyes etorri bitartean. 1-1 amaitu zen partidua.

2017. urtean San Pedro egunez berritu zuen kontratua bi urterako. Denboraldia amaitu bitarte lehen taldearen aulkian eseriko da Imanol. Helburuak hiru: taldearen itxura hobetzea, sailkapenean ahalik eta goren gelditzea eta etxeko jokalariei minutuak ematea. Bederatzi partidu aurretik: Eibarren kontrako derbya lehena. Litekeena da denboraldi amaieran Realak ibilbide luzea duen entrenatzailea ekartzea, baina zeinek jakin. Eroa da futbola, pasa den igandea adibide. Zorte on!



1995eko martxoaren 8an inauguratu zuten Peña Imanol Salatzoko tabernan. GARMENDIA

Beti beak



Eneritz Odriozola

Bada herrian kuadrilla bat *Beti beak*. Fes-
tetako erakusleihotik aparte samar na-
bil azken aldian eta ezin jakin mahoizko
blusarekin ateratzen segitzen duten.

Bizkarrean goian hizki garbiz: *Beti beak*. Asko eta askotan gogoratu izan naiz haietaz urteen joa-
nean. Han eta hemengo bileretan nintzela. *Beti*
aurpegi berak. Ondo asko dakigu zeintzuk izan ga-
ren azken hamarkada edo gehiagoko herrigintzan
Beti Beak.

Baina erreleborako ordua iritsi zaigu. Eta
korrika baino arrastaka ari gara azkenengo kilo-
metroak egiten, testigua nork hartuko. Herrion,

**“Badakigu zeintzuk izan garen
azen hamarkada edo gehiagoko
herrigintzan *Beti Beak*”**

Urkolak esaten duen bezala, minimoak egiten.

Badakit orokorra dela. Lan altruistak, bolunta-
rioak, gainbeheran direla. Mugimendu ekologista
ere gainerako mugimenduekin batera krisialdia
jasaten ari dela.

Eta baikorra naiz erreleboa iritsiko dela pen-
tsatzean. Ez naiz gazteengan konfiantzarik ez
duen horietakoa. Badakit, zinez, urrea balio duten
gazteak ditugula. Fundamentu handikoak direla.
Egunero ikusten ditut, egunero ikasten dut haien-
gandik.

Baina, noiz etorriko dira, Arturo? Edo zer egin
etor daitezen? Nola ikusten duzu egoera uniber-
sitateko behatokitik?

Ez baita indarrrik *Beti beak Sekulasekulum*
beak izateko.



Arturo Elosegi

Bz dakit zer esan, Eneritz. Ni ere askotan
berdin nabil. Baina urteek perspektiba
adina ematen dute iragana idealizatzeko
joera.

Egia da jende gehiago bildu zela Lemoizko zen-
tral nuklearraren kontrako mugimenduan. Baina
orduko giro gogorak harremanak ozpindu eta
jendea etsipenera eraman zuen. Geroztik hortan
gabiltza, zerbait egin behar dela, oker ari direla,
baina inork txanda hartu nahi ez.

Gainetik politika dugu, gai guztiak partidiza-
tzeko joera. Edozein gairen inguruan gure jarrera
partidu politikoen arabera erabakitzekoa. Be-

**“Egia da jende gehiago bildu zela
Lemoizko zentral nuklearraren
kontrako mugimenduan”**

giozu Gipuzkoako zaborren gatazkari edo Mo-
tondori. Behin partiduek parte hartu, gaia betiko
zornatzen da.

Baina bion lanbideak urtero gazte berriak eza-
gutzero garamatza. Eta, tarteka, urrea balio duen
koadrilatxoa ezagutzera. Urkola aipatu duzu, eta
bai, haren promozioa unibertsitatean nabarmen-
du zen. Haiek gauzak egin nahi, ez kexatu soilik.
Eta tarteka horrelako gehiago azaltzen dira.

Azken finean, Eneritz, uste dut borroka batzuk
beti gutxiengoak aterako dituela aurrera. Ingu-
rumena, natura, feminismoa... Baina euskarak
zerbait erakusten digu: mendeetan galtzear, baina
beti etorri da erreleboa. Tematiak behar.

Etorkinez ari garenean



Pat Cowie

Konbentzituta nago, informazio zehatza dugunean, iritzi arrazionalagoak ditugula eta ez emozioz, beldurrez edo inbidiaz betetakoak

Nezka sortu didate nire lagun batzuek esandakoek: *Etorkin mordoa etorri da herrira –Oriora, Aiara eta Zarautzera–. Nabarmena da medikuengandik eta gizarte langileengandik laguntza eskatzeko duten joera. Bertakoek baino laguntza gehiago jasotzen dute, ume gehiago dituztelako. Etxea errazago ematen diete, etorkinen aldeko arauak aginduta. Eta hemengoak gurasoekin bizitzen halabarrez!*

Harrituta nengoen, lagunok ez baintuen inolaz ere arrazistatzat edo xenofobotzat hartzen. Beste gaiekin irekiak dira, informatuak, sozialki arduratsuak... Halako gauzak esateko, orduan, zertan oinarritzen ziren? Oker zebiltzala uste nuela esan nien, baina ez nintzen gauza izan argumentuak gehitzeko, benetako informazioa zehatzik ez nuelako.

Funtsik ba al dago esaten dutenaren atzean, nahiz eta, akaso, egiten duten interpretazioa okerra izan? Zenbat etorkin etorri dira? Zer zerbitzu erabiltzen dituzte? Zer maiztasunekin? Nola dago araututa etorkinak laguntzeko programa?

Konturatu naiz horren gainean oso gutxi dakidala/dakigula, eta herri-tarrok jakin beharko genukeela egiazko egoera zein den, arrazoitu gabeko iritziak ematen hasi baino lehen. Batzuetan beldur gara, etorkinen inguruan hizketan hasten garenean, haien kontra jotzeko intentzioarekin egiten dugula ulertuko dela. Baina alderantziz izatea nahiko nuke: lagunak komentarioak entzuten ditudan hurrengoan prest egon nahi nuke erantzuteko.

Konbentzituta nago, informazio zehatza dugunean, iritzi arrazionalagoak ditugula eta ez emozioz, beldurrez edo inbidiaz betetakoak. Komeni zaigu datu batzuk eskura edukitzea, funtsik gabeko aurreiritziak edo generalizazioak identifikatzeko eta haiei aurre egiteko. Beraz, hau eskatu nahi dut: gizarte zerbitzuek, udalek, eta baita Karkarak ere gaiari heldu diezaiotela, guk herri-tarrok jakin dezagun zertaz ari garen etorkinen etorreraz eta egoeraz hitz egiten dugunean.



Rikardo Uzkudun

Zahar gazteak eta gazte zaharrak

Pentsioen igoera ziztrina dela eta, azkenaldian, adin-neko asko ikusten dut bazterretan.

Milurtekoaren hasieran, hamar-kada bat ekonomiaren olatu gainean pasa genuen, eta azken hamarkada, 2008tik krisitik hona, noraezean ibili gara olatua lehertu ondorengo aparterretan.

20-40 urte arteko gazteak esne mamitan hazi zirela esan ohi da, ikasketaz ikasketa lehendabizi, kanpora igual gero, eta lanean halako batean, lan baldintzetan erreparatu gabe kasik. Zaildu gabeko belaunaldia izan da, protestarako beharrik izan ez duena, eta liberalismoaren makinariak igorritako mezuak bere horretan tratatu dituenak: Ondo prestatu eta lan ona izango duzu, ez aldarrikapenetan sartu zure kalterako izango dira, zuk gastatu hazkunde ekonomikoak ekarriko du ongizatea...

Ba, ekonomiaren marea berriz ere goraka-edo hasi den honetan, ez ote dira gauzak aldatzen hasi? Hortxe daukagu Bizkaiko zahar-etxetako greba, Zara edo Amazoneko langileen protestak, irakasleona, jubilatuen...

Haien garaietan ez bezala, gaur egun, lan egiteak soilik ez du bizimodu hobe bat bermatzen. Izerdiak ez, kapitala izateak eta erabiltzeak ematen ditu etekin handiak, dutenen eta ez dutenen aldea handituz.

Berriz ere, zahar gazteek bere garaian bezala, borroka txikitzen hasi behar dugu gazte zaharrak, denon ongizatea edo gutxien aberastasuna dago jokoan.

“Elkarrizketa gutxi dago bi alderdien artean, ez dago ekarpenik.”

Nekane Arrizabalaga

Aiako alkatea

Alkategai independentea izan zen Aiako EAJren zerrendan 2015eko hauteskundeetan. Hiru urte betetzera doaz geroztik eta, legealdia amaitzen ari den honetan, alkate izateaz eta beste hainbat gaietz hitz egin digu Aiako lehen emakumezko alkateak.

KARKARA

Hiru urte beteko dira laster Nekane Arrizabalagak –Aia, 1972– alkate makila hartu zuenetik. Bi urte egin zituen zinegotzi aurreko legealdian eta, aurretik, Foru Aldundian ere aritu zen lanean. Lehen aldia izan du, ordea, udalaren gidaritza hartzen, horrez gain, Aiako lehen emakumezko alkatea izan da.

Zergatik politikan?

Momentuan martxan zeuden proiektuak gustatu zitzaizkidalako sartu nintzen politikan, herriari gauza positiboak eskaintzeko aukera genuela ikusten nuen. Hori izan zen erabakia hartzeko indarguneetako bat.

Eta pentsatu nuen: zergatik ez? Herrian gaude, bizi osoa hemen daramagu eta herriarengatik borroka egiteko nahi hori beste indarguneetako bat izan zen.

Lehen legealdia duzu alkate. Nolako ari da izaten esperientzia?

Hasieran, guztia bezala, zaila izan zen. Ilusioz beteta hasi nintzen, lehen esan bezala, esku artean genuen proiektuetan sinesten nuelako.

Ilusioarekin lanean hasten zara eta horrek aurrera egiteko gogo handia ematen dizu.

Baina zinegotzi zarenan beti alkatearen atzean zaude. Bere itzalean zaude, babesa ematen, baina bera da lehen ilaran dagoena. Alkate zarenan zu zeu pasatzen zara lehen ilara horretara eta momentu batzuetan gogorra ere bada.

Aiako lehen emakumezko alkatea izatean, gai hori ere askotan buruan nuen bueltaka. Ez dut tratu desberdinek izan dudarik nabaritu, baina ezinbestean buruan izandako kezka da.

Halere, hasiera gogorra izan arren, denborarekin eroso sentitu naiz. Gauzak ateratzen joan direla ikustean eroso sentitzen hasi nintzen.

Zinegotzi izatetik alkate izatera pasa zinen. Desgastea eta nekea al dakartza alkate izateak?

Ez nuke desgastea edo nekea denik esango, desberdina da. Alkatea zarenan, horretara zaude eta dedikazioa



eskaten dizu. Beste lan batean zaudenean ere konpromisoa hartzen duzu eta aurrera egiten duzu, ba hemen berdin. Momentu zailak eta pozgarriak daude, denetik. Ilusioak eta konpromisoak aurrera joaten laguntzen dizu.

Abenduan onartu zenituzten 2018ko aurrekontuak. Zer azpimarratuko zenuke?

Gure legealdi hasierako proiektu handiena Lardizabal eskola izan zen, gure helburua eskola osotasunean amaitzea zen. Horrek inbertsio handia izan zuen aurrekontuetan, proiektu txiki asko geldirik egon ziren, batez ere auzuneetan. Behin eskola amaituta, auzoetan zeuden beharrei begira jarri ginen iaz: Santio-Errekan haur parkea egin genuen, Urdanetan frontoia eraberritu genuen... Azpiegituretan ere jarri genuen fokua: base-ri bideetan inbertsioak egiteko konpromisoa daukagu urtero.

2018ra begira, iaztik hasita, gure proiektu indartsu-enetako bat Andatzako auzo elkarte da. Auzo elkartearen proiektua bi fasetan banatzen da: lehenengoa, auzo elkarte eratzzea, burutu dugu dagoeneko eta, bigarren fasean, erabilera anitzeko gune bat sortzea aurreikusten da. Andatzako pilotalekua ere berritzeko beharra dago.

Bestalde, aurrekontuetan ez da hainbeste islatzen, baina badugu beste proiektu bat eskuartean. Gaztelekua txiki geratzen ari zitzagun eta espazio falta handia zegoen. Lardizabal eraikin zaharra hutsa geratu zenean, udalekuak han egin ziren eta pixkanaka gazteak gune hori erabiltzen hasi ziren. Horrela, gazteleku horri forma ematea da gure asmoa. Horrekin batera, hamasei urtetik gorako gazteentzat ere espazio bat sortzeko proiektua dugu.

Turismora ere bideratu duzue partida bat. Zein da Aiaren lekua Urola Kostako turismo eskaintzan?

Dinamizazio plan bat sortzea da partida horren helburua. Nekazal etxeak, ekoizleak eta herrigunera etortzen den turismo familiar hori lotu nahi ditugu, bisitariak herriguneara eta auzoetan gera daitezten. Herriak dituen baliabideak, azpiegiturek eta eskaintzak ezagutzera ematea dugu helburu, jatetxe, landetxe eta sektoreko beste enpresen elkarlanaren bidez. Zaila da Aia Urola Kostako turismoan sartzea, gu mendian gaude eta ez kostan, baina guk ere badugu gure tokia eta hori ezagutarazi nahi dugu.

Oposizioak aurrekontuen kontra bozkatu zuen, egindako ekarpenak ez zirelako kontuan izan.

Guk gure proiektuak eta garrantzitsuak iruditzen zitzagizkigun inbertsioak mahai gainean jarri genituen eta EH Bildu gonbidatu genuen, beti bezala, ekarpenak egitera. Aurten ekarpenak egin dituzte baina ez dugu adostasunik lortu. Urtero partida bat izaten dugu inbertsioetarako eta aurten murriztu egin behar izan dugu kirol-gune batean ekaitzagatik arazoak sortu zirelako eta inbertsioa hori konpontzera bideratu behar izan genuelako. Nik uste dut horregatik eman zutela ezezko botoa.



“Ameztin gauzak ongi egin ditugula sinesten dugu eta epailearen erabakiaren zain gaude.”



Nolakoa da bi alderdien arteko harremana?

Guk gehiengo absolutua dugu baina gai guztiak gobernu batzordetik pasatzen ditugu, eta hasieratik eman zitzaion oposizioari ordezkaririk izateko aukera. Guk ez dugu inongo eragozpenik gardenagoak izateko eta gure proposamenak gobernu batzordean eztabaidatzeko. Hori izan da gure apustua hasieratik, herriak gu bozkatu gaitu eta berak ere bai.

Elkarrizketa gutxi dago bi alderdien artean, ez dago ekarpenik ezta posiziorik ere. Guk gobernu batzordera eramaten ditugu gaiak, bertan eztabaidatzeko. Horretarako dago mahai hori eta nik uste dut EH Bilduk hori aprobetxatu beharko lukeela. Zoritxarrez, ez dut uste hori denik EH Bilduren helburua, gure lana fiskalizatzen daramate legealdi osoa beren egitasmoiei uko eginez.

Udal erabakietan parte hartzeko zailtasunak izaten dituela esan du EH Bilduk.

Ez dut ulertzen, oso eroso da hori esatea. Hor dago gobernu batzordea, hor dago gure gonbita eta hori da erabakiak hartzeko mahaia. Guk ezin dugu irekiagoak izan, baina beren posizioa parterik ez hartzea da.

Auzo asko ditu Aiak, ez da zentralizatutako herria. Zein da auzoekin lan egiteko modua?

Auzoetako bizilagunek, zerbait dutenean, zuzenean Udalera deitzen dute normalean, baina bilerak ere egin ditugu auzoetan. Aurtengo datak oraindik ez ditugu jarri, baina iaz auzoz auzoko bilera erronda egin genuen eta oso positiboa izan zen. Auzotarrek guri esateko zer

duten jakiteko balio digute bilera horiek; guk beraiei entzuteko, haiek guri baino gehiago. Eta gauza interesgarriak atera dira hortik: Santio-Errekako haur parkea, auzoetatik udaleku irekietara herrigunera etortzeko autobusa...

Kooperatibaren gaiarekin tirabirak izan dira legealdi honetan. Enpresari ordainketa modura plazako eraikina eman zion udalak. Prozedura hori egokia ez dela aipatu izan du EH Bilduk, epaitegietara ere eraman du gaia.

Hori gobernu batzordean hitz egiteko gaia zen baina aldiakari bidez jakin dugu salaketa jarri digutela. Mahai politikoan hitz egin beharrean epaitegietara jo dute, eta hirugarren pertsona batek erabakiko du orain. Guk gure aldetik gauzak ongi egin ditugula sinesten dugu eta epailearen erabakiaren zain gaude. Nire ustez herriari onura izugarria eman diogu: kooperatibaren eraikina oso gaizki zegoen, langileak ere modu prekarioan ari ziren lanean eta, nola ez, hezkuntzarekiko egin dugun apustua ere garrantzitsua izan da.

Eskola berria martxan dago. Zer balorazio egiten duzue?

Oso ona, garbi zegoen eskola berri baten beharra zegoela, espazio faltagatik. Emaiza oso positiboa izan dela uste dut. Eskolako zuzendariak hobeto egingo liguke balorazio bat, baina gure inpresioa oso ona da. Hezkuntzarekiko apustu handia izan da, guretzako oso garrantzitsua baita herriko haurrek herrian bertan ikastea, bizia ematen dio eta etorkizuna lantzen ari gara.

Ameztiko eraikinaren gaia epaitegietan dago. Babes bereziko eremua izanik, eraiki al daiteke leku eta tamaina desberdineko eraikinik originalaren ordez?

Lehen esan dudan bezala, epaitegietan dagoen gai bat izanik hirugarren baten esku dago erabakia. Guk defendatzen dugu ondo eginda daudela gauzak. Berriz ere berdinerara goaz, gure artean mahai politiko batean gauzak hitz egin ordez epaitegietara jo dute. Azken erantzuna, beraz, epaileak eman beharko du. Are gehiago horrelako soka luzea dakarren gai bat izanik. Eraikinarekin baino politikarekin lotutako gai bat bihurtu dela iruditzen zait, lerro politiko garbia hartu du.

Gainera, aipagarria da gobernu batzordean Ameztiko eraikinaren lizentzia landu zenean Bilduk alde bozkatu zuela.

Hauteskundeak datorren urtean izango dira. Aurrera begira, zer?

Azken urtean gaude eta amaiera prozesuan bete-betean gaude: programan genituen proiektu gehienak aurrera eraman ditu eta falta zaizkigunak martxan jarri eta bukatzen ari gara.

Hasieran galdetu didazu ea zergatik nagoen politikan. Gehien maite ditudan pertsonen bultzadagatik sartu nintzen politikan, haiek esandako hitzengatik eman nuen pausoa. Proiektuengan sinesten nuen, baina behar nituen hitz magikoak esan zizkidana ama izan zen. Eta garbi daukat: konpromiso bat hartu dut eta horrekin bukaerara arte egingo dut.

ELEKTRIZITATEA
Ander Expósito
 943 831 774
 800 856 728
 anderexpoeletrizitatea@gmail.com

HERATEGIA
PATXI OLIDEN
 PRODUKTUAK

Hemengo haragia.
 Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
 txekorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

SU KIA
 TABERNA - JATETXEA

On aghi eta gero... hartu KOPA eta TOPAE

- OILASKO EFREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENJA
- EGUNKARIAK
- OGIA

Tf. 943 832 438
 ARRANDEGI 36, 1. BARRA

Carmen eta Txomin
 ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orrio (Gipuzkoa)

Tf. 943 835 980 | Wi www.2gurpil.com | E bigurpil@hotmail.com

arkaitz taberna
 ... orio

- EGUNEKO MENJA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrarekin
 giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

Gabon
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

Alustiza Autobusak
 Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
 Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99

OREKA
 FISIOTERAPIA

Tendinitisak
 Lumbalgia
 Artrisia
 Zefaleak

Manaje terapeutikoa,
 bentonak, akupuntura,
 eskuko terapia,
 osteopatia

943 13 35 37
 Arizaga kalea, 11. lekua

HAIZE BERRI
 taberna-jatebua-kafetegia

Plater konbinatuak,
 bokafak,
 hamburgeriak,
 raziok,
 eguneko menua...

eta etxera eramateko
 zerbitzua!
 943 831 623

Orioko Iñaldegian, Eribera 1

kutixi
 kafetegia
 GOSARI GOWAK

Arizaga 5, 20810 Orrio
 Tf. 943 13 15 17

ANORGA TXIKI S.L
 KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispilluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

libe
 dietetika
 elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 - ORIO
 [sarrera Arrantzale kalean]

943 53 64 94 - 697 23 86 56
 libegarmendia@gmail.com

Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600
 688 714 869

Santi Barranco
 Orioko ordezkaria

Endaia Eparantza, 1
 20810 Orrio (Gipuzkoa)

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com


EKILORE
 GARBIKETAK

626417841
 ekilore@outlook.es

KOLON TXIKI
 sarraildegia
 jatebua

Herriko Eparantza, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

TRANSFERENTZIA ARRUNTAK Zenbatekoa



Orioko Udalak 7,7 milioi euroko aurrekontua izango du 2018an


Otsailean egindako urteko lehen udalbatzarrean 2018ko aurrekontuak onartu ziren, aldeko bost botorekin. Udal Gobernuak 1.064.282 euro bideratuko ditu inbertsio errealetara.

KARKARA

Otsailean egindako Ogasun Batzordean jaso bezala, 7.787.102 euroko udal aurrekontua aurkeztu zen urteko lehen udalbatzarrean. Aldeko bost boto (EAJ), kontrako bi (Orain) eta bost abstentziorekin (EH Bildu eta PSE-EE) eman zitzaion onarpenera.

Emendekin ugarirekin osatutako aurrekontuak

Presupostuen onarpenera gehiengo sinplearekin lortu izanak, agerian laga zituen aginte taldearen eta oposizioaren arteko arrakalak. EH Bilduk *anbizio eza* eta *herri proiektuen falta* leporatu zizkion EAJri. Beren esanetan, oposizio taldeek lan handia egin behar izan dute aurre-



kontuak behar bezala osatzeko. *Emendakinei esker lortu dira ongizaterako eta Mugiment jarduera fisikoa sustatzeko egitasmorako diru partidak, eta Arraunetxeko museoa eraikitzeko inbertsioak*, azaldu zuen Aizpea Huegun zinegotziak.

Orain plataformako kideek proposamenaren kontra bozkatu zuten, oposiziotik egindako emendakin *potenteei* esker aurrekontuak *onak* iruditu arren. Adierazi zuten, jeltzaleek ez dute aurrera eraman adostutako lan kronograma. Hitzartutako konpromisoak ere ez dituzte bete, beste urte betez. Bi argudio horiekin justifikatu zuten beren ezezkoa.

PSE-EEko Ana Priederen hitzartzea oposizioko beste bi alderdien bidetik joan zen: *bihartik aurrera lanean hasten ez bagara, aurrekontuak onartzeak ez du ezertarako balio izango*. Zinegotzi sozialistak antolakuntza, komunikazio eta eguneroko lan falta leporatu zizkion EAJri.

Alkatearen iritziz, emendakinak egin aurreko presupuestuak *hobeak* ziren. Oposiziotik egotzitako lan faltari erantzunez, *EAJren lanari esker* 2016ko udal aurrekontua %95etik gora bete zutela argudiatu zuen. Honen harira, EH Bilduko Emeterio Iribarrek 2016ko likidazio txostena aurkeztu zuen. Dokumentuaren arabera, inbertsioen betekizuna %57koa izan zen %95-ekoa beharrean.



2018rako aurreikusitako gastu batzuk

Orioko Udalak 3 milioi euro gastatuko ditu pertsonal gastuetan, eta 2,2 milioi kontratazio eta zerbitzuetan. Tartean, 326.158 euro mankomunitate eta kontsortzio gastuetara bideratuko dira: EUDEL, UKUE (hondakin kudeaketa, enpresa garapena, enplegu sustapena, euskara...), UEMA...

242.029 euro Udal eraikinak eta zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresei emango zaizkie: Arraunetxe, Mendibeltz, Karela...

Diru-laguntzen alorrean, 52.784 euro familiei bideratuko zaizkie: irisgarritasuna, familia ugariak, euskara ikasketak, gizarte ongizatea... Orioko Herri Ikastolak 156.148 euro jasoko ditu, Zaragueta Herri Eskolak 46.727 euro, Esperientzia eskolak 6.999 euro, San Nikolas haurtzaindegiak 3.000 euro. Ohiko kirol laguntzetan 47.500 euro gastatuko ditu Udalak, ezohiko laguntzetan 32.500 euro, eta Orio Arraun Elkarteak 72.830 euro jasoko ditu.

Kultur jardueretarako 23.000 euro bideratu ditu Udalak, KARKARAK 21.371 euro jasoko ditu, eta Urola Kostako Hitzak 6.000 euro.

Inbertsioei dagokionean, Aritzaga kaleko saneamendu obrak 196.000 euroko kostua izango du Udalarentzat, eta moilako obrak 280.387 eurokoa. Mutiozabalen saneamendura 49.994 euro bideratu dira eta autokarabanen aparkalekura 25.000 euro.

Kultur Etxean 30.000 euro inbertituko dira, Karelana 12.200 euro, Itxas Etxean 7.000 euro, Kanpinean 20.000 euro, eta hondartzako eraikinetan 25.250 euro. San Martin auzoko argiterian 60.000 euro gastatuko dira, eta Danbolin musika eskolako gas instalakuntzan 21.000 euro.

Arraunetxeko altzarrietan 41.994 euro gastatuko dira, Udaletxeko altzarrietan 5.600 euro eta helduen parkean 12.000 euro. Mendibeltzeko garajeetan 6.000 euro.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 33.380 euroko kostua izango du, eta Udalak 25.000 euro gastatuko ditu bestelako azterketa eta proiektuetan.


2018ko diru sarrerak

Orioko Udalak zuzeneko zergekin 1.289.300 euro jasoko ditu. Tasa eta bestelako zergekin 1.699.715 euro: tartean, Orioko kanpineko egonaldien tasekin 870.000 euroko diru sarrera izatea aurreikusten da, hondartzako bide publikoen erreserbarekin (TAO) 148.000 eurokoa, isunekin 64.199 eurokoa, eta TAO isunekin 5.000 eurokoa.

Transferentzia arruntekin 4.105.517 euroko diru sarrera izango du Udalak: Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak, zerga itunduak...

Ondare sarrerekin 129.446 euro jasoko dira, eta kapital transferentziekin 493.124 euro.

Karkara.eus-en aurrekontuen inguruko informazio zehatzagoa eskainiko dugu datozen egunetan.



"Orioko Udalak 3 milioi euro gastatuko ditu pertsonalean."

"Aritzaga kaleko saneamendu obrak 196.000 euroko kostua izango du, eta moilako obrak 280.387 eurokoa."

IBILALDI NEU



600 partaidetik gora Orioko ibilaldi neurtuan

Gipuzkoako eskolarteko XXXI. ibilaldi neurtua egin zen martxoaren 11n, Orion, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Mendizale Federazioak antolatuta, Talai Mendi elkartearen laguntzarekin. Goizeko 8:30ean hasi ziren, eta Itsaspe eta Kukuarri inguruko parajetan egin zen ibilaldia. Urola Kostako txoko ezberdinetatik etorritako 492 haurrek eta 150 helduk giro epel eta lehorra izan zuten lagun ibilbidean; hala ere, tarteka, hego-mendebaldeko haize ufaden astinduak jaso zituzten. Irudiek erakusten duten bezala, goiz pasa ederra izan zen mendizale txikientzat.



ORTUA ORION



EUSKARALDIA abian da Orion ere!



Euskal Herrian azken urteotan abiatu den ekimen anbiziotsuenetako bat da EUSKARALDIA. Gizarte-aldaketako dinamika ausart bat da, jendearen ohitura linguistikoetan eragin nahi duena. EUSKARALDIA Euskal Herri osoan egingo da, eta Oriok ere dagoeneko eman du izena parte hartzeko.

KARKARA

Euskaraldiaren oinarrian dauden ideia nagusien *teorikoa* Pello Jauregi unibertsitate-irakaslea da; haren hitzetan *EUSKARALDIA ez da euskararen aldeko kanpaina bat, eta ez da jai bat ere, baizik-eta ariketa kolektibo erraldoi bat, herritarren ohitura linguistikoetan eragin nahi duena, euskara gehiago erabil dezaten*. Pello Jauregik hitzaldi gogoangarri bat eman zuen Orion 2014an eta han azaldu zituen gerora Lasarte-Orian, Agurainen, Donostiako Egia auzoan eta beste hainbat tokitan egin diren esperientzien oinarri teorikoak. Esperientzia horiek emaitza ona izan zuten eta arrakasta horrek ekarri du aurten Euskal Herriko erakunde publikoek eta euskalgintzaren ordezkariak Euskaraldia antolatzea euskararen lurralde osoan.

11 egun euskaraz

Euskaraldiaren barruan, aurtengo azaroaren 23an hasi eta abenduaren 3ra arte, '11 egun euskaraz' izeneko ekimena jarriko da martxan Euskal Herri osoan, parte hartzea erabaki duten herrietan. Ondoko orrialdeko infografian hobeto ikusten da zer den ekimen hori; baina, funtsean, honela funtzionatuko du: herritar batzuek *Ahobizi* papera jokatuko dute eta paparrean jarritako txapa baten bitartez adieraziko dute hori; ahobiziek bi konpromiso hartuko dituzte: batetik, euskaraz egingo dietela beti euskara ulertzen duten guztiei, eta, bestetik, euskaraz egingo dutela lehen hitza ezezagunen aurrean. Bestalde, beste herritar batzuk *Belarriprest* papera jokatuko dute eta, hartara, txapa jantzita adieraziko dute berekin lasai egin daitekeela euskaraz, ulertzen dutelako;

beharbada, ez dira gai izango hitz egiteko edo elkarrizketa osoa euskaraz egiteko; baina gogo onez hartuko dute jendeak berei euskaraz egitea.

Ahobizi edo Belarriprest izateko, izena eman beharko da eta horretarako epea irailaren 20an irekiko da.

Karkara eta Udala, elkarlanean

Joan den urteko abenduaren 3an aurkeztu zuten Euskaraldia Bilbon eta, pixkanaka, ari da bidea egiten Euskal Herri osoan. Euskaraldiak badu ezaugarri berezi bat, han eta hemen itxaropen handia sortu duena: lehenbiziko aldiz, euskararen aldeko elkarte eta mugimenduek bat egin dute erakunde publikoekin, ekimen handi bat elkarrekin bultzatzeko.

Elkarlan horren eredu zabaltzen ari da, gainera, herrietara ere eta Orion, esate baterako, Karkara elkarteak eta Udalak batera egin zuten Euskaraldiaren aurkezpen-ekitaldirako deialdia. Orioko aurkezpena 2018ko otsailaren 3an egin zen eta, argazkian ikusten den bezala, jendetsua izan zen: 75 bat lagun bildu ziren Arraunetxeko areto ederrean.

Andoni Egaña eta Arrate Illaro

Otsailaren 3ko ekitaldiaren hasieran Udaleko Euskara batzordeko buru Aitziber Camposek eta Karkara elkarte Rikardo Uzkudunek hartu zuten hitza, bertaratuei ongietorria egiteko eta ekitaldiaren nondik norakoak azaltzeko.

Segidan, Andoni Egañak hogeitun minutuko hitzaldi laburra eman zuen hizkuntzaren egoeraz, gure eskualde euskaldunaren ikuspegitik, eta gaiari buruzko zertzeladak eta anekdotak harilkatu zituen ondo jositako solasean. Bertsolari zarauztarrak ondo ezagutzen du ingurua eta geolinguistika faktoreak azpimarratu zituen diagnosian. Galdera-erantzun batean laburbildu zuen ideia nagusia: *euskararen ezagutza igo bada zergatik egin du erabilerak pixka bat behera? Euskara zabaldu egin da baina degradatu ere bai, esanindarra galdu du.* Halere, Egañaren iritziz badaude itxaropentsu egoteko motiboak: *erakunde eta herri eragileen elkarlana usaintzen dut EUSKARALDIA ekimenean eta horregatik bakarrik pozgarria da.*

Ondoren, Arrate Illarok azaldu zuen zer den Euskaraldia, nondik sortu den, nola gauzatu den Euskal Herri osoan eta zein diren urtea bukatu arte aurreikusten diren lanak. Arrate Illarok Euskaltzaleen Topagunearen izenean hitz egin zuen, bertan ari baita lanean Euskaraldia koordinatzen. Arratek egitasmoaren malgutasuna

ORIO

HERRIEN IZEN-EMATEA:
2018ko abenduaren 30a
HERRIARRIEN IZEN-EMATEA:
2018ko abenduaren 30a

ARIKETA SOZIALA
Euskaraldia euskararen erabilera areagotzeko ariketa soziala da: 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo dugu, Euskal Herri osoan.

NOLA EGINGO DUGU?
Ondoko bi roletako bat hartuz 11 egunetara eta txapea bat jarrita:

ANOBIZI
Uleritzen duenari euskaraz egingo dio, hark erdaraz erantzun amen. Ezazagunei lehen hitza, gubilonez, euskaraz egingo diet.

BELARRIPREST
Egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo odirut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut.

NON EGINGO DUGU?
Bakoitzak bere inguruan, bere ohiko harreran sareetan: familian, lagunartean, lanean, eskolan, dendetan...

NORK HAR DEZAKE PARTE?
16 urtetik gorako herritarrek eman dezakegu izena.
• Ahobizi izateko, euskaraz hitz egin behar da.
• Belarriprest izateko euskara ulertu behar da.

NORK ANTOLATZEN DU?
KARKARA elkarteak eta Udalak elkarrekin

EUSKARALDIA
11 EGUN EUSKARAZ

azpimarratu nahi izan zuen: *ekimena Euskal Herri osora zabaldu nahi dugu, horretarako egitasmoa martxan jarri den herrietan zerk funtzionatu duen azaltzen ari gara. Baina herri bakoitzean sortzen den lantaldeak eman behar dio forma dinamikari, herriaren ezaugarriak eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta.*

Lantalde zabala

Aurkezpen-ekitaldian bertan hogeitik gora lagunak adierazi zuten prest daudela Euskaraldiko Orioko lantaldean parte hartzeko. Beste askok erakutsi zuten prestutasuna era batera edo bestera laguntzeko eta interesa agertu zuten informazioa jasotzen segitzeko.

Lantaldea hasita dago bilerak egiten eta dagoeneko bitan juntatu da, ekimenaren faseak aztertzeko, Orioko egoera aztertzeko eta hemendik urte bukaera arte egin beharreko lanez hitz egiteko. Lantaldearen erronka nagusia Euskaraldia oriotarren artean ezagutzera ematea eta jendearen parte-hartzea sustatzea izango da.

Heroiak



Hiru gerra betanoren istorioa kontatzen du antzezlanak. HEROIAK

Kritika

Antzezlanak. Martxoaren 2an izan zen Kultur Etxean, Ramon Agirre, Kandido Uranga eta Jose Ramon Sorozien eskutik.

Aspaldian kultur etxera antzerkia ikustera joan gabe, eta sarrerak hartzerak hurbildu ginenerako, bukatzeaz. Pintxo potea, afari mokia eta antzerkera.

Hiru gizon heldu, gerraren ondorioak jasaten, zahar egoitza batean sartuta, handik ateratzeko planak egiten ibili zitzaizkigun. Felipe, buruan zeukan metraila baten eraginez, ziplo geratzen zen tarteka, eta gerrako pasarte batekin esnatzen zen. Gustavok beldurra zion egoitzatik ihes egiteari, eta Enriqueri, egoera fisiko kaxkarra bazuen ere, bertatik irtetea gustatzen zitzaion.

Nola eta nora ihes egin fantasian ibili ziren, harrizko txakurra lagun zutela. Lizunkeriatan ere jardun ziren, Enriquek bere ibilaldietan inguruko komentuko neska gazteak ikustera joaten zela aitortu zuen, eta Felipek egoitzako emakume bati ohea egiten ari zela gerritik heldu eta sexu erasoia nola egin zion azaldu zuen.

Pertsonalki, barre egiteko baino, hausnartzeko tartea izan nuen, zer pentsatua eman baitzidan gerra batean bizitakoek zahartzaroan nola eragin dezaketek ikustek.

MIRARI ARRIOLA

Zaragueta
Herri Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

Maidar Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

Orioko
Herri
Ikastola

Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

TXUKUN
LORAZANTZA, S.L.

Tel. 660 332 756 · 679 428 851
...
txukunlorazantza@hotmail.com

Lorzaintza
Mendiko lanak
Indusketak
Itxiturak
...

Morea



Garbiñe Manterola

Ezin izan nuen grebarik egin. Etxetik kanpo ezinezkoa egin zitzaidan. Etxe barruan beste horrenbeste, greba gose greba bihurtuko ez bazen. Inbidiaz jota bizi izan nuen eguna.

Nire armairuan ez da erraza ezer morea topatzea, eta kosta zitzaidan egun handirako uniformea lortzea, baina zorioneko bufanda bat topatu nuen kajoiaren bazter batean. Ez nuen oso maitea aurrez ere, baina gure amonak hilabete luzeetan dolauren koloretako bat bihurtu zuenetik tris-turarekin lotu izan dut kolorea, ez borrokarekin.

Ezin izan nuen grebarik egin. Etxetik kanpo ezinezkoa egin zitzaidan. Etxe barruan beste horrenbeste, greba gose greba bihurtuko ez bazen. Bakarrik bizi garenok ezin zaintzari planto egin. Inbidiaz jota bizi izan nuen eguna, jasotako mezu eta argazkien artean.

Lanetik Oriora bueltan arratsaldeko manifestaziora garaiz iritsi nintzen. Hura poza. Marea moreak gizon izena duten kaleak hartu zituen: Eusko Gudariak gora, Arrantzale behera. Ez zen izan ez marea hila, bizi-bizia baizik. Amonak, amak, alabak, gehiago; baina aitonak, aitak, semeak ere batzu-batzuk. Horrelakorik gutxitan ikusiko genuen herrian. Kolore guztietako jendea helburu bakarraren alde.

Plazara iritsi eta izeba topatu nuen. Argazki bat aterarazi zidan sakelakoarekin alabak eta biek pegata bana paparrean zutela. Orion daramatzen hirurogeita bi urteetan inoiz horrelakorik ikusi gabea zela eta familiakoei bidali nahi izan zien estanpa. Osaba bizirik balego harro egongo litzatekeela gehitu zuen. Nik sinisten.

Grebaren deialdiaz jakin nuenetik haren eragina eta emaitza zein izango zen imajinatzea zaila egin zitzaidan. Ez baitzen betiko deialdia. Gizartearen erdia bakarrik deitua, zaintza eta kontsumoari uko egitea,... bazituen ezohiko faktore dezente. Eta horrek berak zalantza ugari sortu zizkidan eguna gerturatu ahala. Zer egin, nola egin. Eta inguruan ere jende asko igarri nuen antzeko egoeran. Hortxe igarri nuen lortu zela helburua, bazterrekoa erdigunean ikusi nuen-eta. Gaia denon mahaien bueltan.

Dena historikoa dela esaten dugu azken boladan. Historikoa ez, martxoaren 8koa, inflexio puntu bat izan zela esango nuke. Gure herriak borroka guztiona dela erakutsi zuen. Eta niri tristurarekin baino festarekin lotzea hobe dela morea.

Sinergia | fisioterapia & merkuntza

· Lesioak: bihurturak, tendinitisak, zointiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosio, kirurgia osteko birgaitzea, bizkor hezurreko arazoak, arnas galkotasunak, haur eta heduetan, lesio neurologikook, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeozioa.

· Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesiotaping-a, pilates, abdominalekako gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.



943 13 05 77
685 71 85 95

Itxar Oribe, I. Bizarri - Oribe
sinergiafisioterapia.com



%0,25-a: Hutsaren hurrengo igoera

Beste urte betez, pentsio publikoei %0,25eko igoera minimoa aplikatu die Gobernu zentralak. Neurriak haserrea eragin du herritarrengan, eta urtarrilaz geroztik, mobilizazio jendetsuak egin dira pentsio duinen alde.



“Frustrazioa etxeko egongela eta sukaldeko epeletik atereaz, milaka pentsiodunen haserreak kaleak hartu ditu.”

"Pentsioena da gizarteari datorrion erronka handienetakoa."

TESTUA: IÑIGO GAITON
ARGAZKIAK: KARKARA

Zarautz, Donostia eta inguruko beste herrietan mugimendua sumatu zutenean, Orioko Zaharren Babeslekuko zuzendaritzako kideak martxan jarri ziren. Martxoaren lehen egina zuten lehen elkarretaratzea plazan, eta orduz gero, ostegunero 350-400 lagun inguru juntatzea lortu dute. Oraingoan, ez dute gelditzeko asmorik. *Jarraitu egingo dugu, Rajoyk zerbait egin artean. Behatza mugituko du horrek, baina hankarik ez, dagoeneko ondotoxo ezagutzen dugu!* Aho bilorik gabe mintzo da Jose Manuel Arrillaga. Hizketaldian zehar, tarteka, bere ironiak zorrotz ebakiko du egoeraren gordina.

Azken urteetan ahultzen joandako erosahalmena, krisiak behartuta hartutako aurre erretiro murriztaileak, alarguntza pentsio eskasak... Pentsiodunek arrazoi ugari dituzte protesta egiteko, baina %0,25eko igoera izan da, batik bat, egoera leherrarazi duena.

Txomin Iribarrek, Orioko Zaharren Babeslekuko presidentek, gainontzekoek bezalaxe, etxean jasotako gutun zuriarekin izan zuen igoera hutsalaren berri. Gabonen ostean izan zen, urte hasieran. *Gorrotoa piztu zitzaidan. Amorrua. Bosgarren urtez igoera minimoarekin jarraitzen dugu.* Zifra hutsean lagako balute, hobe. Jose Manuelek hala uste du. Ezina sentitu zuen berak. *Gutuna jaso nuenean, inpotentziagatik, garrantzirik ere ez nion eman; oso sinistuta dugu, barruraino sartu digute, norberak bakarrik ezin duela ezertxo ere aldatu.*

Etorkizuneko erronka latza

Bakarkako frustrazioa etxeko egongela edo sukaldeko epeletik atereaz, milaka pentsiodunen haserreak kaleak hartu ditu urtarrilaz geroztik. *Bazen mugitzeko garaia,* esan dute askok. Alderdi politikoak eta sindikatuak ere berandu iritsi dira, Jose Manuelen iritziz. Orain artean ez dute borroka hau babestu. *Zorionez, eztanda ez da Euskal Herrian bakarrik izan, eta Espainia osoan egin dira mobilizazio potoloak,* poztu da Txomin.

Pentsioena da gizarteari datorrion erronka handietako bat. 2011. urtetik Espainiako Gizarte Segurantzaren defizitariotza da, eta urtetik urtera, gastuak handiagoak ditu diru sarrerak baino; pentsioen ordainketan langileen kotizazioagatik jasotzen dena baino kopuru handiagoa gastatzen da.


Nazioarteko Diru Funttsaren arabera, neurri esanguratsurik hartu ezean, pentsiodunen erosahalmena herena urrituko da 2050. urterako.

Demografiaren bilakaera ere kontuan hartu beharreko faktorea da. Euskal Herrian, adibidez, Europako jaio-tza-tasarik baxuena daukagu. Urtetik urtera, biztanleria galtzen ari gara, eta kotizazio-egileak geroz eta gutxiago dira. Halaber, biztanleria zahartzen doa. Munduko bizi-itxaropenik handienetakoa dugu hemen. Ondorioz, osasun eta mendekotasun gastuak ere handiagoak dira.

Biztanleriaren zahartzea Euskal Herrian

Adin piramidea (%)

● 2000 ● 2030



Emakumeak egoera larriagoan

Hego Euskal Herrian 681.719 dira pentsio publikoa jasotzen duten pertsonak. Batez beste, gizona bakoitzeko 1.434,11 euroko pentsioa jasotzen dute hilean. Emakumeek 825,08 eurokoa. Infografian ikus daitekeen bezala, emakumezkoen %55,1-ak jasotzen duen pentsioa gutxiengo soldatetik (735,90 euro) beherakoa da.

Alargunen kasuan, adibidez, egoera larria da oso, sistemak ezkututzen duen bidegabekeria baten ondorioz: pentsioek ez dute islatzen senar zenduek kotizatu ahal izateko emakumeek etxean egindako lana; etxeke babes hori gabe, familian ez zen soldatarik sartuko. Gaur egun, alargunek ez dute hildako senarraren pentsio osoa jasotzeko eskubiderik. Zifrei erreparatu, emakumeek ez dute kotizatzaileak bezainbesteko ahalegina egin familien ekonomia sustatzeko. Gai honetan ere, zabal eta sakona da emakume eta gizonen eskubideen arteko arraildura.

Nola irauli daiteke egoera?

Gu ez gara adituak zenbaki eta ehunekoak kalkulatzeko, baina ez da matematikaria izan behar. Pentsioak bizitza garestitu den proportzio berean igotzea exijitzen dugu, dio Jose Manuelek. Besteak beste, pentsio minimoa 1080 eurora igotzea eskatzen dute.

Itxura guztien arabera, pentsiodunen eskaria ez da beteko, Espainiako Gobernuak pentsioen defizita estaltzeko tresna bat behintzat baduen arren: superabiteko



INFOGRAFIAK: BERRIA

681.719

Pentsiodun kopurua Hego Euskal Herrian.

2018ko urtarrileko datuen arabera, urtebeteen %1,5-ean hazi da pentsiodun kopurua. Atzerago joanda, 2000. urtetik gaurdaino 158.113 gehiago daude; hazkundea %30,2koa izan da 18 urtetan.



urteetako diruaren itsulapikoa. Erreserba funtsa. 2011. urtean 65.000 milioi zeuden aurreztuta, baina urte berean hasi zen Gobernua aurrezkiak gastatzen. Gaur egun, 8.000 milioi bakarrik geratzen dira. *Banketxeak saneatzeko ere erabili zuten diru hori, noiz itzuliko dute? Eta ustelkeria kasuetan lapurtutakoa?* galdetzen du Jose Manuelek.

Gizarte Segurantzaren gastuak gutxitzeko, zenbait pentsio (alarguntza, zuzrtasun pentsioak, amatasun eta aitatasunenak...) aurrekontu bidez finantzatzea ere proposatu dute eragile batzuek.

Konponbide horiek ez dira oso eraginkorrak izango, arazoaren sorburua zintzotasun eta elkartasun falta denean. Gobernuburu eta enpresariak diru gehiago irabazten jarraitu nahiko dute beti. Jose Manuelek argi du hori. Adituen arabera, lan-kontratuak egitea sustatzeko baliatzen diren hobari eta murrizketak ezabatu egin beharko lirateke. Enpresaburuei ere kotizazio handiagoak ezarri beharko litzaizkieke, enplegu eta kotizazio-aldi prekarioak eragiten dituzten lan-kontratuak baliatzeagatik, edo kontratazioan iruzur egiteagatik.

Gazteei gonbita

Denok izan gara gazteak. Hemezortzi urterekin, normala den bezala, zahartzaroa eta jubilazioa urruti ikusten dira, behin ere etorriko ez balira bezala. Baina urteek azkar egiten dute aurrera. Zaharren babeslekutik, gazteei mobilizazioetara azaltzeko gonbita luzatu nahi diete. *Gazte gutxi azaldu dira plazan egin ditugun elkarretara-*

tzetara. Borroka hau beraiengatik ere egiten dugu. Atzetik datozenengatik. Beren egungo lan panorama kaskarra da benetan, eta etorkizuna gurea baino beltzagoa dute. Borroka berean sartuta gaude denok. Txominek argi du hori.

Zintzotasunaren aldeko borroka

Injustizia sozial andanaren ondorioz bizitzaz ikuspegi nahikoa grisa dugun garaiotan, optimistak ez dira inozoak. Hori dio Frédéric Lenoir soziologo eta filosofo frantsesak: *pesimistak uste du munduaren egora makurra dela benetan, eta optimistak, hura nola hobetu pentsatzen dihardu etengabe.*

Pentsiodunen borroka optimismoa ekarri du gizartera. Indarra. Bizitza duinaren eta eskubideen aldeko borrokarako adinik ez dela existitzen erakusten ari dira. Jose Manuelek dioen bezala, *beste ezeren gainetik zintzotasuna da eskatzen duguna.* Bizitza osoa lanean pasa ostean, duintasuna eskatzen dute ozen, bizitzaren azken etapa deitzen diotenaz patxadaz gozatzeko.

Jubilazioa garai ona da ikasten jarraitzeko, mugitzeko. Nik orain inoiz baino gehiago idazten dut. Irakurri ere bai. Lehengo aldean, erretiratuak espabilatu egin gara. Txominen iritziz, kontzientzia politikoa hartu dute, eta aurrerantzean, zailagoa izango da beraiei adarra jotzea.

Irabazi egingo dute borroka. Hori dio Jose Manuelek: *bestela, beraien bila joango gara!* Eskubideak eta erosahalmena galdu arren, ironia zorrotza eta umorea mantentzen dituzte Orioko pentsiodunek. Ez dira arma kamutsak iraultzarako.

KAIOA

Arropa
Oinetakoak
Osagarriak

Ametzola kalea, 6
T 943 394 885
ORIO (Guzkotan)

Zgorria kalea, 18
S.Franzisko kateoliko ondo
T 943 021 834
ZARAUZ (Guzkotan)

Erriani kalea, 10
T 943 543 023
ZUMAIA (Guzkotan)

www.kaioa.es

Desatascos
LASTER

24

688 886 536

Seguro enreka 21-A - 20190 Zarautz - Albarrenasoli Segur Itz 20110 Oriz - Tel: 943 791 431
desatascos@desatascoslaster.com - www.desatascoslaster.com

urbide
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4
20800 Zarautz
943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

BODEGAS
Gailur

94302 BARRIO & CIBRO
Tel/Fax: 943 40 01 06
www.bodegagailur.com

Amador Erriza

ZUDUGARAI

Galeriako Txakolina

Tel: 943 83 03 86
Fax: 943 83 59 32
txakolizudugarai@txakolinet.net
www.txakolizudugarai.com

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiasc@javierowigalooa.es
ZOBIO ORIO

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA - ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALDURKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATERENTZAKO ZERBITZUA

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47

GARMENDIA

IRISEREN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASIGURUAK

Ibañe Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
informacion@garmendigestion.com

ETXeko BEREZITASUNAK

ARRAIN ZOPA
PARRILA

BODEGON SARASUA
ERRETEGIA

Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO - Tel.: 943 83 00 05

ITZALA

kartetan jokatzeko
apropia

tel. 943 83 12 59

Lizaso
dekorazioa

Tf: 943 83 07 84
Faxa: 943 24 87 15

Eusko Gudari, 48

ITZIAR
kirolak

Tel. 943 83 31 03

ASADOR XIXARIO

Eusko Gudari Kalea, 2
Tel: 943 305 019 - 0800

edertutegia
ANTILLA
justelua

Abesfari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

TOTAL TRAINING- EKO ATE IREKIAK/ Puertas abiertas de Total Training

Apirilak 9/ 9 de abril - 20:30 **BPXpÖrt**



Neska koadrila, arrantzale-jantzian, 2006ko balearen egunean.

Emakume arrantzaleak

**Oroimenaren
kutxa**

Euskadi Irratian entzun nuen: Santurtzin eta Orion bakarrik omen daude –Euskadin–, ka-lean, emakume konkretu bati eskainitako bustoak: Santurtzin, Dolores Ibarruri *La Pasionaria*; eta Orion, Maria Camino *Maria Maestra*. *Izugarría*, pentsatu nuen, baina gehiegizkoa egia izateko

Biharamunean Aian egokitu nintzen. Hango kanposantuaren aurreko iturriaren ondoan, emakume baten bustoa ikusi nuen. Maria Aurizenearena da. Han zen andre batek esan zidan Maria herriko idazkaria izan zela, etxean botika-zerbitzua eskaintzen zuena. Erantsi zuen Aian badela beste batena ere, Pepita Zabalarena. Pepita serora zen eta kanpai jolea, kanpai hotsek esanahi asko eta handia zutenean.

Donostian Kontxako pasealekuan estatua bat dago. Hauxe dio haren azpiko idatziak: *Clara Campoamor. Donostian lurperatua. 1931n Emakumeen botoa lortu zuen. Askatasuna eta berdintasuna, erabiliz ikasten dira*. Nolanahi ere, emakumeak presentzia txikia du bizitza publikoan. Anjel Lertxundik artikulu batean zioen Zarautzen kale bakarra dagoela emakume baten izena duena, Maria Etxetxiki. Orion ez dago bakarra ere.

Clara Campoamorrek aldarrikatzen zuena egin nahi izan zuten Orion emakume batzuek 1780an: askatasuna erabili, berdintasuna lortzeko. Jose Antonio Azpiazu-*ren Euskal emakumeak eta itsasoa* lanean irakur daiteke Orion 1780an gertatutako auzia.

Orioko orduko alkate Juan Migel Sagarzazuk debekatu egin zien emakumeei, arrazoï moralengatik, erriorean arrantzan ibiltzea, uretan sartuta. Haren iritziz, ez zen onargarria: *no es propio de mujeres el ejercicio de la pesca en la ría entrando en agua, por su indecencia, y mal parecer en público desnudas lo más del cuerpo, especialmente así mezcladas con los hombres que frecuentemente concurren a dicho trabajo; nunca jamás se aprobó, antes bien, siempre se les ha afeado por los señores alcaldes y personas celosas de esta villa, aunque sacando poco fruto, obediencia*

y respeto a la justicia, por haber sido sus providencias solo verbales.

Horregatik, eta emakumeen *lotsagarrikeriari* bukaera emateko, agindua eman zuen, idatziz, emakumeari galarrazteko erriorean sartzea, uretan edo lokatzetan, arrantza egitera. Eta obeditzen ez zuenari dukat leko isuna jarriko zitzaiola, aurrenekoan; 2.ean, 2koa; 3.ean, 4koa; eta hurrengoan, kartzelara.

Azpiazuk dioenez, Orioko orduko emakumeek nortasuna erakutsi zuten agintarien debekuen aurrean: gizonetzkoek bezala arrantzan ibiltzeko eskubidearen alde borrokatu ziren; ez zuten lotsarik gonak jaso eta uretan sartzeko, eta lan eginez bizimodua aurrera ateratzeko.

Gaur egun emakume askok hartu dute toki nabarmena gizartean. Orioko Udalak noizbait erabaki beharko balu zer emakumeri eman herriko zerbaiten izena, aukera asko izan litzake. Kirolaren praktikan emakume asko murgildu dira: arrauna, softbola, futbola, pilota, saskibaloian... Aurten, adin batetik gorako emakumeak, lehen arraunean ibili gabeak, serio entrenatzen dabilta udan Bilbo eta Orio arteko itsas miliak traineruan egiteko. Izen adierazgarria du haien ahaleginak: *Zergatik ez?*

Gaztetxearen kanpoaldean herriko emakume baten irudia margotu dute, izena erantsita: Kaxilda plaza. Emakume horrek beti erakusten duen kemena eta ausardia nabarmendu nahiko zuten gazteek.

Lehen debekatua zuten bestelako eremuetan ere sartu dira emakumeak, eta tokia hartu. Ez da aspaldi emakume bat izan zela herriko alkate. Udaltzainak ere badira...

Orain urte gutxi arte, idatzi gabeko arau batek elizako koruan sartzea galarazten zion emakumeari. Gaur egun, emakumez osatutako koruak alaitzen du igandeko meza nagusia. Koruan ez ezik aldarean ere izan dute sarbidea. Emakumea izaten da gehienetan ebanjelioa irakurtzen, komunioan forma ematen ere aritzen dira.

Apazik ez dago emakumezkorik. Quosque tandem? Noiz arte?

IÑAKI IURAIN



Emakumeek planto egin zutenekoa

2018ko martxoaren 8a historiara pasa da dagoeneko. Historiara pasa da Euskal Herriko hiriburuetan kaleak greba egin zuten emakumeekin bete zirelako, baina batez ere, herrietan ere emakume guztiak kalera irten zirelako.

Ongi dakite Xaltxerek ez dela berdina hiri batean edo herri batean jardutea eta eragitea. Baina feminismitik egindako lanak bere fruituak eman zituen emakumeen nazioarteko egunean. Jendetza irten zen kalera egun hartan, zartaginak, txistuak eta zarata egiten zuen edozer eskuan hartuta.

Zenbat izan ziren? Zaila da jakitea, baina Arrantzale kalea punta batetik bestera zeharkatu zuen martxa zaratatsuak eta, plazan, Kontxako banderarekin bakarrik bildu da hainbeste jende azken urteetan.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

azku
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7

20809 Aia-Orio

Tf/fax: 943 83 51 86

carroceriasazkue@hotmail.com

LARDIZABAL HERRI ESKOLA



“Etorri berritan urte bat edo bi pasako nituela uste nuen eta konturatzerako 30 igaro dira”

Rosa Corral

Aiako sendagilea

Rosa Corral 60 urteko errioxarrak 30 urte daramatza Aian mediku. Hona hemen elkarrizketa tailerrean guri kontatutakoak.

Txikitatik nahi al zenuen medikua izan?

Bai, betidanik gustatu izan zait. Umetako jolasetan ere medikua izan nahi izaten nuen.

Gustura zaude zure lanean?

Bai, txikitatik amesten nuena egiten dut eta Aian oso-oso gustura nago.

Zaila al da medikua izatea?

Bai eta ez, bizitzaren beste gauza guztiekin bezalaxe gogoarekin hartzen baduzu eta lan asko egiten baduzu.

Zer botika errezetatzen duzu gehien?

Parasetamola izango da segur aski, mundu osoan bezalaxe.

Gaixoeak aintzat hartzen al dituzte zuk emandako tratamendu eta aholkuak?

Gehienek bai, noski, azkenean guk ere behin eta berriro errepikatzen ditugu aholku berberak eta jendeak azkenean bereganatu egiten ditu.

Medikuntzan zer daude gehiago emakumeak ala gizasemeak?

Duela 30 urte, hasi nintzenez, gizonak ziren gehienak; orain, gehiengo emakumeak garena esango nuke.

Zer hizkuntza erabiltzen duzu pazienteekin?

Normalki euskaraz, baina orain jende dezente etortzen ari da Aiara euskalduna ez dena eta horiekin gazteleraz.

Bizitza osasuntsu bat izateko, zer gomendio emango zenizkiguke?

Hasteko tabakorik ez erretzea eta alkohola ez edatea. Gero, ondo elikatzeari denetik jatea, baina barazki eta fruta asko eta gantza gutxi. Lo ondo egitea oso garrantzitsua da eta ariketa fisikoa egitea ere bai, jakina. Bukatze-ko, zoriontsu bizitzen saiatzea.

Erraza al da herri txiki batean mediku izatea?

Herri txiki batean lan egiteak bakardadea suposatzen du, alegia, zure gain geratzea erabaki guztiak hartzea. Baina, arrazoi berberetatik gehiago garatzen dituzu zure lan-gaitasunak. Erronka horrek aukera eskaintzen dizu zure lan-esperezia aberasteko.

Ordenagailua, sareak, internet... baliabide berriek asko lagundu al dizute?

Lehen historialak, txostenak... dena eskuz egiten genuen. Gaur egun dena informatizatuta daukagu baina batzuetan faltan botatzen dut sistema hura. Bestalde, telefono mugikorrek asko lagundu du komunikazioa errazteko, adibidez, urgentziaren bat suertatzen denean ni topatzeko



Iraia Arozena

Txakurren kaka

Naixo, ni Iraia naiz eta txakurren kakei buruz dudan iritzia azalduko dizuet.

Gaur egun, ia etxe guztietan txakurrak daude, eta kalera ateratzen dituztenean, kaka egiten dute eta gero beraien jabeek ez dituzte jasotzen.

Egia esan, lotsagarria da. Herri batzuetan kartelak daude jarrita esaten dutenak: *txakurra zurea bada, zergatik kaka denona?* Aian, auzo-konposta egiten den gunean, txakurrak kaka egiteko tokia dago, baina inork ez du erabiltzen, eta ziur nago inor ez dela gogoratzen hor dagoenik. Ni bizi naizen auzoan ere arazo berdina dago eta denak kaka toki berean egiten dute, hau da, gure txabola aurrean eta, noski, inor ez dugu ikusten gorotzak jasotzen. Berez, ni bizi naizen tokian txakurrek kaka egiteko beren tokia badute, baina inork ez du erabiltzen. Guk ere baditugu txakurrak eta asko gustatzen zaizkigu, baina ez dute kaka egiten inoren etxe aurrean. Honekin esan nahi dut jabeek arreta handiagoarekin ibiltzeko eta txakurrak egiten duen kaka jasotzeko. Penagarria da toki guztietako arazoa izatea eta hau konpontzeko zerbait egin behar dugu.

Arazo hau konpontzeko zerbait egin behar dugu

Alokairu soziala Muntón



Etxe berri eta erabilien prezioak puztu egin ziren burbuila inmobiliarioarekin eta, azken urteetan merketu egin diren arren, oraindik ere garestia da etxebizitza bat erosi edo, batez ere, alokatzea. Are gehiago egungo krisi ekonomikoa kontuan izanda.

Horren harira, otsailaren 15ean Orioko PSE-EEko zinegotzi den Ana Priedek mozioa sartu zuen Udalean. Urteko ohiko lehenengo udalbatzarrean, otsailaren 21ean eginikoan, PSE-EEK Munto eremuaren inguruan aurkeztutako mozioa onartu zuten, Orain plataformaren, PSE-EEren eta EH Bilduren aldeko zazpi botoekin. EAJK abstentzioa eman zion sozialistaren proposamenari.

Priedek adierazi zuenez, mozioaren bitartez, zaurgarritasun sozioekonomiko egoerak saihestez eta bizitzeko oinarrizko baldintzak bermatuz gain, gazteek euren bizi proiektua Orion hasteko baldintzak sortzen saiatu nahi dute.

Lau puntu zituen mozioak:

1.- Orioko Udaletik Eusko Jaurlaritzari eskatzea babeseko etxebizitzak egiteko Orion, alokairuzko erregimenean eta gazteei lehentasuna emanaz horiek eskuratzeko. Helburu hori lortzeko, udalak behar diren bilera eta gestioak egingo ditu 2018ko lehen sei hilabetekoan.

2.- Eusko Jaurlaritzari doan lagatzea Muntoko udal partzela –bizitegi izaeraduna eta etxebizitza babestu gisa erabiltzeko izendatua–, bertan babeseko etxebizitzak egin ditzan alokairuzko erregimenean eta gazteei lehentasuna emanaz horiek eskuratzeko.

3.- Orioko Udalak aurreko puntuan aipatzen den lagapena gauzatzeko behar diren txosten eta azterketak egingo ditu.

4.- Orioko Udalak behar diren gestio guztiak egingo ditu akordio hau gauzatzeko, eta erabaki honen berri emango dio Eusko Jaurlaritzari.

121 herritar izena emanda

Eusko Jaurlaritzak otsailaren 28an emandako datuen arabera, Etxebizitza sailean Orion erroldatutako 121 herritar daude alokairuzko pisua lortzeko izena emanda. Erroldatu gabeak beste 73 dira; alegia, guztira 194 biztanlekoa da kopurua.

Muntoko partzelako proiektuak aurrera jarraituz gero, bertan alokairu sozialerako 48 etxebizitzatik gora egiteko aukera egongo litzateke.

Anibarko Portuan ere alokairua

Orioko Udalak Anibarko Portuan lokal batzuk ditu eta horietan alokairu sozialeko sei etxebizitza egitea aho batez onartu zen udalean.

Planteamendua honakoa litzake: Eusko Jaurlaritzak prest legoke etxebizitza horien obraren zati bat ordaintzeaz gain alokairuen kudeaketa ere bere kargu hartzeko.



EAJ

Herriaren ondarea herritarren beharretara

Pasa den plenoan, PSEren inizatibaz, Muntoko partzela Jaurlaritzari lagatzeko mozio bat eztabaidatu zen. Mozioan partzelaren lagapena alokairuzko etxebizitzak eraikitzeke izango zela jasotzen zen. Mozioaren funtsarekin ados gaude EAJko udal taldeko kideak. Aldiz, lagapen horretan Orioko herritarrentzat, hau da Orion erroldatuak dauden pertsonentzat ez zen lehentasunik bermatzen.

Horregatik Orioko EAJko zinegotziak mozio honetan abstenitu egin ziren. Alderdi honek guztiz barneratua du udaleko eta herriko kontuak erantzukizunez kudeatu behar direla. Partzela honen lagapenak herriko gazte eta beharrea dauden familiei onurak ekarri behar dizkiola bermatu behar da. Erantzukizunaz eta arduraz, gure herritarrei mesede egingo dien irtenbideak sortu behar dira herriarenak diren baliabideak erabiltzerakoan.



Orain

Alokairu sozialaren alde

Otsaileko Udaltzarrean onartutako mozioak lau puntu zituen: alokairuzko etxebizitzak izateko Eusko Jaurlaritzarekin gestioak egitea, ondo bidean Munto partzela lagatzeko azterketak egin, hala bada doan laga eta Jaurlaritzari Udaltzarreko akordioaren berri ematea. Badakigu herritar talde bat kooperatiba baten bitartez etxebizitzak egiteko proiektuarekin dabilela. Udaletxeko udal talde politikoei aurkezpena egin ziguten arrazoi sendoak mahai gainean jarriz eta bateragarriak izaten baziren bazegoen biak egitea. Hori bai, bat aukeratzeko emanda Orain taldea alokairu sozialaren alde egiten du. Ondo joanda Munton bi urte pasako direnez etxebizitzak eraikitzeke eta erabiltzeke, ez legoke gaizki Anibarko portuan udalak duen lokalean sei apartamentu dotzionalak egiteko 2016ko urriaren 27ko batzordean azaldutako txostena eta Eusko Jaurlaritzarekin hitz eginda 2017ko otsailaren 21ean informatutakoa Udaletxeak behin-berri martxan jartzen baditu.



EH Bildu

Iniziatiba ona

Etxebizitza eskuratzeko arazoa ez da gaur egungoa gure gizartean; baina azken aldiaren areagotu egin da. Batetik, etxea erosteko dauden zailtasunak; bestetik, azken urteetan alokairuaren prezioak izan duen gorakada; eta, azkenik, krisiak ekarri dituen lan baldintza eta soldata eskasak... Horren guztiaren emaitza begien bistan dago: gero eta gehiago kostatzen zaie gure gazteei gurasoen etxetik alde egitea eta, bestalde, etxebizitzaren kostua jasanezinezko zama bihurtu da familia askorentzat.

Orioko EH Bildurentzat interesgarria da otsaileko udalbatzarrean onartutako mozioa. Gustatuko litzaiguke alokairuzko babespeko etxebizitzaren bide hori aztertzea. Eskuartean etxebizitza beharren azterketarik ez daukagun arren, jakin badakigu herritar asko daudela Etxebiden izena emanda, alokairurako zerrendetan; beraz, formula hori alternatiba egokia iruditzen zaigu, beti salmentako etxeak egitera jo gabe.



PSE-EE

Aukera bat Oriorentzat

Otsailean Orioko PSEk Muntoko partzela Eusko Jaurlaritzari lagatzeko eskatzen zuen mozio bat eraman zuen udaltzarrean, gaztetzako alokairu erregimeneko etxebizitzak eraikitzeke. Orion oso garestiak dira etxebizitza libreak eta alokairua eta herriko zenbait sektorek zaila dute etxebizitza izatea: gazteak, guraso bakarrek familiak, adinekoak eta desgaitasunak dituzten pertsonak. Arazo honen soluzio errealea alokairua dela uste dugu. Mozioa gehiago absolutuz onartu zen, EH Bildu, Orain eta PSEren botoekin. Orain EAJren gobernu taldeak Jaurlaritzarekin kontaktuan jarri eta adostasunera iritsi behar du hitzarmen bat sinatzeko. Oriorentzat aukera ona da partzela hori izatea alokairuzko 48 etxebizitza eraiki ahal izateko Eusko Jaurlaritzaren babesarekin. Udalak bere kabuz ezin du proiektu hau ekonomikoki aurrera atera. Erosketa erregimeneko babes ofizialeko etxebizitzak ziurtatuta daude Dikeko gunean, horregatik, Muntoko partzela alokairurako erabili behar dela uste dugu.

Jubilatu eta pentsiodunen eguna ospatuko dute apirilaren 11n



Apirilaren 11n, asteazkenean, jubilatuen eta pentsionisten eguna ospatuko dute Orioko nagusiek. Urteroko ohitura bilakatu da edadetuak bildu eta mezara joan ostean Aginagako Errasti sagardotegian bazkaltzea. Bazkalostean, urtero bezala, kantuan arituko dira. Egunari hasiera eguerdiko 12:00etan emango diete jubilatue eta pentsionistek, Orioko elizan egingo den mezarekin. Meza bukatzean autobus zerbitzua izango da Goizeko kafetegiaren

aurrean. 13:00etan bi autobus aterako dira, eta ordu erdira, 13:30ean, beste bi. 14:00etarako guztiak Aginagako Errasti sagardotegian bilduko dira. Bertan bazkalduko dute, eta bazkalostean, kantu saioa izango dute. Arratsaldeko 18:00etan izango da bueltako autobusa.

Bazkari txartelak erosteko egunak apirilaren 3a eta 4a izango dira. Arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara erosi ahal izango dira txartelak 23 euroren truke.

Aipatutako bi egunetan salduko dira soilik bazkari-txartelak, hortik aparte, ez da txartelik salduko.

Txartelak erosteko eguneratuta eduki behar da bazkide txartela. Bazkaritara joaten diren guztiak -bai sozioek, bai gonbidatuek-, jatetxeko arduradunari emango diote txartela bazkaritarako garaian. Norbaitek kale egiten badu, hau da, txartela erosi ondoren atzera egiten badu, ez zaio dirurik itzuliko arrazoizko justifikaziorik gabe.

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

azkue

Tf: 943 130 438

azkue

ROSANA
-ARGAZKI ESTUDIOA-
fotorosanaarruti@gmail.com
telf: 943 83 58 45

2018
Jaunartzeak

Telf: 943890416

Gaberna

Orio Menua



Kultura

Akelarrek kontzertua emango du Aian ekainaren 2an

Zurrumurrak lehendik zebiltzan arren, aurreko astean baieztatu zuten: Akelarre taldeak kontzertua emango du Aian ekainaren 2an.

Soraluzeko rock taldeak kuttuna du Aiako plaza, eta 2017an itzulerako hiru kontzertu eman eta gero, Aian emango du hurrengoa. Gari eta Iñaki trikitilariek irekiko dute gaua 22:30ean, eta 00:00etan hasiko da Akelarren emanaldia. Ondoren, DJ Bullek musika saioa emango du gaua borobiltzeko.

Sarrerak apirilaren 13 eta 14an jarriko dituzte salgai Aiako pilotalekuan, 16:30etik 20:00etara. 1000 sarrera jarriko dituzte salgai eta pertsona bakoitzak gehienez 10 erosi ditzake. Apirilaren 16tik aurrera internetez ere erosi ahal izango dira musika.com atarian. Prezioa 12 eurokoa izango da aurrez erosiz gero eta 16 eurokoa egunean bertan. Internetetik erosiz gero 13 euro ordaindu beharko dira.

Lanpostuak

2018ko udako lanpostuetarako deialdia egin du Udalak

Udalak hainbat udako lanpostuetarako deialdia egin du. Deialdian parte hartzeko, langabetua izan behar da eta Orion erroldatua. Hartuko diren langileen kontratuak lan-zuzenbidezko erregimenean egingo dira, denboraldi baterako. Hauek dira lanpostuak: kabinen garbitzailea -2-, kanpineko komun garbitzailea -4-, udaltzain laguntzailea -1-, kanpineko zaindaria -1- eta Txu-Txu trenaren gidaria -1-.

Udaleko aldizkako langile finkoren baten lanpostuari uko egiten badio, haren lanpostua ere gehituko zaio goiko zerrendari; eta Udalari aurreikusi gabeko premiaren bat sortzen bazaio ere, sor daiteke beste lanposturen bat.

Eskabideak martxoaren 19tik apirilaren 13ra bitarte aurkeztu behar dira, biak barne eta udal bulegoetan aurkeztu behar dira, bertan emango den eskar-orria betez. Bulego orduak: asteleheneretik ostiralera 8:30etik 14:30era.

Interesatuak udal bulegoetan eska ditzakete deialdiaren oinarriak. Lanpostu horiek betetzeko probak 2018ko apirilaren 28an egingo dira, larunbatarekin, Orioko kultur etxeko areto nagusian, goizeko bederatzietan hasita. Ordutegi zehatzak aurrerago argitaratuko dira orio.eus webgunean.

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN

Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net

Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

URAITZ

Lurrinlogia

Janitzai-argazkiak

Enketa 3 Tfn: 943 83 18 07

EGIN ZITEZ LAGUNTZAILE

K

Karkara

karkara

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan eskaera

- Mutil gaztea lan bila adineko jendea zaintzeko. Orduka egingo nuke lan. Erizaintza eta garbiketa ezagutza eta tituluak ditut. Tf: 603644555
- Emakumea zaintza edo garbiketa lan bila. Paperak legez, gomen-dio profesionalak. Tf: 647123293
- Rosa lan bila, etxetik kanpo helduen zaintzan. Esperientzia eta paperak ditut. Tf: 663117579
- Urme zaintzan zein etxe-ko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tf: 638730544
- Lan bila nabil, etxe barnean edo kanpoan egiteko: haur eta helduen zaintzan, ospitalean konpainia egiten... Gazteleraz, arabieraz eta euskaraz zerbait dakit. Tf: 612488307

Salgai

- Duplex-a arrantzale kalean. 3 logela, 2 komun, terraza, eta garaje itxia. Goiko solairura igotzeko eskalera batzuk ditu. 15 urteko etxebizitza. 395.000€ Tf: 648820190
- 140m2ko etxea lurrekin salgai Oriotik 10 eta Aiatik 5 minutura. Etxeak 4 logela, 2 komun eta garajea ditu. Familia eta lagunekin gozatzeko portxe eta zelai zoragarriak ere bai. Oso argitsua. Berehala bizitzen jartzeko dago. 300.000€. Tf: 657701911
- Aiako aurtengo intxaurrak salgai: 4 kilo 22€, tamaina onekoak, etxera eramanda. Pati deitu: 943 132131 edota 634 424 887
- Euskal Artzain eta Border Colie arrazako txakurkume mestizoak salgai. Tf: 634410993
- Etxebizitza salgai Aiako Santio auzoan. 91 m2, egongela zabala, 3 gela, 2 bainugela, garajea eta 2 trasteleku Erabili gabea, altzaririk gabea. 172.081,82 Euro. Tf: 660455530 -Gorka-

Erosi

- Bi logelako etxebizitza erosi nahi dut. Tf: 652731121

Alokairua

- Etxea alokagai Orio erdigunean, 4 logela ditu eta oso argitsua da. Epe mugaturako izango da. Tf: 647576763
- Bikote oriotarra alokatzeko etxe baten bila. Tf: 697933663

Lan eskaintza

- Zaharren Babeslekuak tabernaria behar du, euskalduna izatea ezinbestekoa. Urte osorako lana. Tf: 639729981

ITSASOA

	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	5:57 eta 18:17	12:01 eta ____	○
02	6:34 eta 18:53	0:16 eta 12:38	○
03	7:10 eta 19:27	0:54 eta 13:14	○
04	7:46 eta 20:02	1:31 eta 13:50	○
05	8:23 eta 20:39	2:10 eta 14:27	○
06	9:02 eta 21:22	2:51 eta 15:08	○
07	9:51 eta 22:15	3:38 eta 15:58	○
08	10:55 eta 23:30	4:38 eta 17:03	○
09	12:25 eta ____	5:54 eta 18:23	○
10	0:58 eta 13:47	7:14 eta 19:39	○
11	2:09 eta 14:45	8:18 eta 20:37	○
12	3:01 eta 15:29	9:07 eta 21:23	○
13	3:42 eta 16:06	9:48 eta 22:02	○
14	4:19 eta 16:40	10:24 eta 22:38	○
15	4:54 eta 17:14	11:00 eta 23:15	○
16	5:29 eta 17:49	11:36 eta 23:51	○
17	6:06 eta 18:25	12:12 eta ____	○
18	6:44 eta 19:03	0:30 eta 12:51	○
19	7:25 eta 19:45	1:11 eta 13:33	○
20	8:11 eta 20:32	1:56 eta 14:18	○
21	9:03 eta 21:28	2:47 eta 15:11	○
22	10:08 eta 22:39	3:48 eta 16:14	○
23	11:29 eta ____	5:01 eta 17:31	○
24	0:03 eta 12:57	6:24 eta 18:54	○
25	1:26 eta 14:12	7:42 eta 20:07	○
26	2:34 eta 15:10	8:45 eta 21:05	○
27	3:29 eta 15:58	9:37 eta 21:54	○
28	4:16 eta 16:40	10:20 eta 22:37	○
29	4:57 eta 17:17	10:59 eta 23:16	○
30	5:35 eta 17:53	11:36 eta 23:53	○

ZAINTZAKO BOTIKAK

APIRILA:

- 1ean eta 2an, Esparza
- 3an, Zulaika
- 4an, Iriarte
- 5ean eta 6an, Lasa
- 7an eta 8an, Larrañaga
- 9tik 13ra, Lasa
- 14an eta 15ean, Iturria
- 16an, Iriarte
- 17an, Etxeberria
- 18an, Gaminde
- 19an, Larrañaga
- 20an, Lasa
- 21ean eta 22an, Gallo
- 23an, Esparza
- 24an, Gaminde
- 25ean, Larrañaga
- 26an, Iturria
- 27an, Lasa
- 28an eta 29an, Gallo
- 30ean, Gaminde

- **Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Esparza:** Santuiturri plaza, 5-6. 943 50 47 83 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orto
- **Gallo:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Gaminde:** Gipuzkoa kalea, 68. 943 47 75 84 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz



Zarautz
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa
> Hileta zerbitzu orokorrak
> Zerbitzu iraunkorra



Harrespil
Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

KOMIKIA



GARBIÑE UBEDA

Orio

Kultur Etxeko ordutegia

• Martxoaren 26tik apirilaren 6ra, Kultur Etxea goizez bakarrik irekiko dute: 9:00etatik 13:00etara.

Lore eskaintza

• Martxoaren 25ean, Juan Priederi lore eskaintza, 12:00etan hilerrian.

Literatura

• Apirilaren 16ean Miriam Mendoza ipuin kontalaria, 18:00etan Kultur Etxean.

• Apirilaren 28an eskola-umeen literatur lehiaketaren sari banaketa, 13:00etan, udaletxean.

Euskal Eskontza

• Ekainaren 30ean, 30ean, Euskal Ezkontza tradizional bat antzestu nahi dute herrian, San Pedro jaietan. Bilera informatzailea, apirilaren 16an 19:00eta Kultur Etxean.

Aia

Txakolin eguna

• Apirilaren 8an Txakolin eguna, 11:30etik aurrera Herriko plazan. Kopa 4 eurotan eta txahal pintxo 2 eurotan.

Musika

• Ekainaren 2an Akelarrerren kontzertua. Sarrera salmenta, apirilaren 13 eta 14an Aiako pilotalekuan, 16:30etik 20:00etara. Prezioa: 12 euro aurrez erosita, 16 euro egunean bertan eta 13 www.musikaze.com webgunean.

Podologoia

• Apirilaren 28an podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943 13 11 44



Ubegun industriagunea, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO



IRAKURRI
GOZATU
OPARITU



1001 mundu



Euskarazko liburu bat irakurtzen gozatu eta gainera, beste liburu bat %35 merkeago erosteko txeketa lortuko duzu. Martxoaren 12tik maiatzaren 31ra, zure herriko liburutegian. www.topagunea.eus/irakurri

ANTOLATZAILEAK:



ETA HERRITAKO ERAGILEAK

Babesteak:



Laguntzaileak:



ALBERDIANA



HERRIAK ETA TOKIKO ANTOLATZAILEAK

Agurain - Udala
Antsoain - Udala
Aranguren -
Udala
Asparrena -
Udala
Astarribia -
Udala

Azkoitia - Udala
Balmaseda - Udala
Barakaldo - Udala
Barrika - Udala
Baztan - Udala
Berriobeña - Udala
Berriozar - Udala
Burlata - Udala

Dulantzi - Udala
Ermua - EUSKAL
ERUSA
Estorribar - Udala
Gastiez - Udala
Gehoa - EGUZU
Hemari - Udala
Igorre - Udala

Iruñea - Udala
Izola - GERRIKO
Iztoreta -
Mankomunitatea
Legazpi - Udala
Legutio - U. Liburutegia
Lezama - Udala
Lizama - GAREAN

Malerria -
Mankomunitatea
Mañaria - Udala
Ordorua - Udala
Ordizia - HIZARU
Orio - Udala
Sakana - Mankomunitatea
Sopela - Udala

Sorokua - PIRPLEAN
Uhartu - Udala
Ultzama - Mankomunitatea
Zaldibia - Udala
Zamudio -
LAGATZU
Zigite - U. Liburutegia
Zuzur Nagusia - Udala